

#57 / 2025 URTARRILA

arteka



**KOMUNISMOAREN
ALDEKO GERRA**

GEDAR

— Sozialdemokraziaren
espekulazioaren kontra
—burgesiaren botere-egiturak
konkistatu eta bere onurarako erabili nahi ditu–,
uste dugu ez dagoela errealitate gordina baino
argudio hoberik. Zenbaki honetan, zenbait iraultza-
esperientzia aztertu ditugu arlo militarren
ikuspegitik. Izan ere, komunismoaren osagai
funtsezkoa da botere politikoa konkistatzearen eta
klase-etsaiaren gaitasun politikoak suntsitzearen
aldeko borroka erabiltzea esplotazioaren gainean
eraikia ez dagoen gizarte berri bat eraikitzeko.
Zalantza oro, klase-etsaiaren gaitasun politikoak
erabiltzera irekia dagoen hausnarketa oro, ez da
iraultza sozialistari uko egiteko modu bat besterik

Edukia

6

10

24

38

EDITORIALA

Arteka

**Komunismoaren aldeko
gerra**

KOLABORAZIOA

Etsai

**Zaharra garaitu eta berria
marraztu**

KOLABORAZIOA

X. G. Axpe

**Estatua disolbatzen:
Errusiako Iraultzaren
hainbat erronka**

KOLABORAZIOA

Miguel García

**Borrokaren beroan:
alderdi komunisten
eraketa eta estrategia
militarra**

Komunismoaren aldeko gerra

Editoriala

Leninen idatzirik ezagunenetako bat, *Estatua eta iraultza*, ez zen sekula bukaeraraino idatzi. Idatzia-
ren amaiera aldera, Leninek eten bortitza egin zuen, Urriko Iraultzaren bezperan sortua zen krisi poli-
tikoa zela-eta, eta ondorioztatu zuen idazkia osorik idazteko zeregina atzeratu egin behar zuela momen-
tuz, izan ere, "atseginagoa eta probetxugarriagoa da 'iraultzaren esperientzia bizitzea' hari buruz idaztea baino".

Estatua eta iraultza lanean, Leninek botere po-
litikoaren teoria marxista aztertu zuen, eta, horre-
tarako, hauek baliatu zituen besteak beste: Parisko Komunako esperientziaren material historikoa, pro-
letariotzaren esperientzia handi hari buruz Marxek idatzitako saiakera politikoak eta ondoren Engelsek Estatuari buruz idatziriko liburuxka.

Lehen begiratuan, esan liteke eskusiboki teoria-
ri zuzenduta dagoen Leninen idatzi bakarrenetakoa dela, batez ere etorkizunerako oinordetzan utzi zuen idatzi sortarekin konparatuz gero; liburux-
ka iraunkorra da, itxuraz harreman esturik gabea Alderdi Boltxebikeak garatu zuen taktika politiko koiunturalarekin. Hala ere, nolabait ere, gure le-
kuan jartzen gaitu bukaerako eten horrek: botere politikoaren auzia gaurkotasan handiko gaia zen une

Leninek teoriarekin zuen harremanaren adibiderik frogagarriena –teoria praktika sozialistara subordinatuta eta beti haren mende zegoen elementu gisa– "Estatua eta iraultza" lanaren bukaeran gelditu zen hutsunean ikus daiteke, betirako geroratu zuen bukaera horren gabezia hain zuzen

Sozialdemokratek hausnartzen dute Gobernuko boterea bereganatzen dutenean nola antolatuko dituzten Estatua, Polizia eta Armada; eta komunista eta iraultzaileek, berriz, haiek guztiak nola suntsitzen diren hausnartzen dute, horixe baita, beren-beregi, iraultzaren helburua

horretan, eta hura argitzea, beraz, agindu bat bihar-munean bertan boterea hartu nahi zuen Alderdi Komunista harentzat. Leninek teoriarekin zuen harremanaren adibiderik frogagarriena –teoria praktika sozialistara subordinatuta eta beti haren mende zegoen elementu gisa– *Estatua eta iraultza* lanaren bukaeran gelditu zen hutsunean ikus daiteke, betirako geroratu zuen bukaera horren gabezia hain zuzen.

Liburuxkaren edukia ezaguna da. Hartan, Leninek baieztatzen du iraultza sozialistaren zeregina Estatu kapitalistaren abolizioa dela, eta horrek Polizia, armada iraunkorra eta burokrazia abolitzearen zeregina dakarrela berekin, “herri armatua” antolatuz bakarrik egin daitekeena. Horrela, gizartearen antolakuntza demokratikoaren bidez bakarrik abolitu daiteke Estatu kapitalista, proletariotzaren borroka antolatuaren eta haren diktaduraren zabalpenaren bidez bakarrik konkista daiteke, norbanako guztiak antolakuntza-forma berri batean txertatzeko, non auzi publikoa ez den lanaren banaketa kapitalistaren eremu bat, politikaren eta klase menderakuntzaren eremu berezi eta baztertzaille bat, ezinbestean burokratek bereganatua.

Alabaina, programa politikoaz harago, etsaiaren kontrako erabateko gerrako egoera bat aurkezten digu liburuxkak. Botere politikoaren teoriaz baliatuz, Leninek bere helburu bat bete zuen: burgesiaren eta gizarte kapitalistaren kontrako guztizko borrokarako proletariotza antolatzea. Ez da, inondik ere, hausnarketak lasai eta kaltegabe bat, ezta hurrik eman ere. Sozialdemokratek hausnartzen dute Gobernuko bo-

terea bereganatzen dutenean nola antolatuko dituzten Estatua, Polizia eta Armada; eta komunista eta iraultzaileek, berriz, haiek guztiak nola suntsitzen diren hausnartzen dute, horixe baita, beren-beregi, iraultzaren helburua. Haiek suntsitu ezean, ulertzen da nahikoa liratekeela erreforma metagarriak, erreformistek aldarrikatzen duten moduan.

Sozialdemokraten eta komunisten egoera desberdina haien pentsamendu desberdinei eta beren buruei esleitzen dizkioten zeregin desberdinei dagokie. Sozialdemokraten pentsamenduan dagoena zera da, behin “garaile” direnean zer egingo ote duten burgesiaren indar politikoekin; eta, komunistek, berriz, indar horiek nola suntsitu pentsatzen dute, ez baitute beste aukerarik existitzen jarraitu nahi badute.

Azken pentsamendu hori dagokio mugimendu iraultzaile bati, bai eta errealtatea aldatzeko xedea duten mugimendu guztiek aurrean duten errealtateari ere. Nola pentsa zezaketen boltxebikeek zer egin autokraziak eta haren ondorengo gobernu burgesak oinordetzan utzitako botere-egiturekin, kontuan hartuta aurrean zuten gerra soilik buka zitekeela etsaia guztiz suntsituz edo bizia galduz? Inork pentsatzen al du Txinako komunistak, Kuomintangaren kontrako gerra zibil bete-betea, pentsatzera gelditu ziren nola berrantolatu behar ote zen indar publikoa garaipenaren ondoren? Alderdi Komunista hori, bestalde, etsaiaren kontrako gerrarako armada bat zen neurri handi batean, hura suntsitzeko antolatua.

***Nola pentsa zezaketen
boltxebikeek zer egin
autokrazia eta haren
ondorengo gobernu burgesak
oinordetzan utzitako botere-
egiturekin, kontuan hartuta
aurrean zuten gerra soilik
buka zitekeela etsaia guztiz
suntsituz edo bizia galduz?***

Maiz, iraultzaile handiek saihestu egin dute etorkizuneko gizarteari buruzko hausnarketak egitea edo gizarte horrek hartuko dituen antolakuntza-formak konkretuki aztertzea, esan izan baitute zenbait auzi praktiko ebazteko unea mugimendu praktikoa haiei aurre egin beharrean dagoenean dela, ez lehenago. Horren adibide paradigmatikoa da lanaren emantzipazioari dagokion forma politikoa Parisko Komunaren deskubritu izana, dagoeneko hamarkada batzuk paseak zirenean formulatu zutenetik proletariotzarentzat berehalako helburua zela botere politikoa hartzea. Gainera, etorkizuneko fantasiak, espekulazio filosofikoak, ez dira iraultzaileen kontua, iraultzaileek iraultzan zentratzen baitituzte beren indarrak, etsaiaren menderakuntza suntsitzean, dagoeneko existitzen den horretan (Kapitala, Marxen hitzetan, “burgesiaren buruen kontra inoiz jaurti izan den misilik tamalena da”). Fantasia eta espekulazio horiek dituzten bakarrak bizirik aterako direla dakitenak dira, eta ez etengabe aurre egin behar dietenak indarrean dagoen ordena iraultzaren bidetik –bide posible bakarra– borrokatzeak dakartzan arriskuei.


Horrekin, sozialdemokraziaren espekulazioaren kontra –burgesiaren botere-egiturak konkistatu eta bere onurarako erabili nahi ditu–, uste dugu ez dagoela errealitate gordina baino argudio hoberik. Zenbaki honetan, zenbait iraultza-esperientzia aztertutako ditugu arlo militarren ikuspegitik. Izan ere, komunismoaren osagai funtsezkoa da botere politikoa konkistatzaren eta klase-etsaiaren gaitasun politikoa suntsitzaren aldeko borroka erabiltzea esplotazioaren gainean eraikia ez dagoen gizarte berri bat eraikitzeko. Zalantza oro, klase-etsaiaren

***Etorkizuneko fantasiak,
espekulazio filosofikoak,
ez dira iraultzaileen
kontua, iraultzaileek
iraultzan zentratzen
baitituzte beren indarrak,
etsaiaren menderakuntza
suntsitzean, dagoeneko
existitzen den horretan***

gaitasun politikoak erabiltzera irekia dagoen hausnarketa oro, ez da iraultza sozialistari uko egiteko modu bat besterik.

Halaber, botere politikoa konkistatzeko borroka-prozesuan sortzen diren antolakuntza-forma komunitarioak aztertuko ditugu. Hizpidera ekarriko ditugu etorkizuneko gizartearen aurreirudi bat ematen diguten forma batzuk, baina boterea hartzeko bulkada politikoari menderatuta sortzen direnak, eta momentu estrategiko horri egokituta daudenak. Iraultza sozialistaren onurarako baino existitzen ez diren forma politiko batzuk, eta haren mende daudenak. ●

KOLABORAZIOA



ZAHARRA GARAITU ETA BERRIA MARRAZTU

Testua — **Etsai**

Irudia — **Zoe Martikorena**

Ez dago gizarte egitura oso bati tiro egiterik, ezta haren ekoizpen-moduari eta ondoriozko erlazio sozialei ere. Aurrekargako fusil zaharrek zein makina modernoek ez ditzakete dauden baldintza materialak euren kabuz ezereztu eta berriak ezarri. Mao Zedongek esana da: “botere politikoa fusilaren ahoan jaiotzen da”. Halaber, honakoa ere aurreratu zuen: “fusildun etsaiak ezabatu ondotik, fusilik ez dutenak geratuko dira”.

XX. mendeko iraultzen esperientziak frogatzen digunez, fusilik gabeko etsaiak, boteretsuagoak ez ezik, mundu zaharra deuseztatzen deitutakoen lerroetatik beretatik ere sortuak ziren. Kapitalaren botere ekonomikoa, jeneralei eta batailoiei men egiten ez diena, gutxietsitako etsaia izan da historikoki. Haren arma propioekin egin zitzaion aurre, eta, bestela ezin zenez, ez zen hura garaitzea lortu. Kritikaren Alderdiak garaipen horren ondoren onartu zuen garai historiko berri batek mundu lazarri hau aldaezina dela onartzeari uko egin, eta, beraz, emantzipazioarekin osoki konprometituta daudenei exijitzen zien hori.

Gure garaia berriz ere kritikaren garaia da, baina filosofo ilustratuek ideia hori formulatu zuten garaietan ez bezala, bizi duguna ez da Argien Mende berri bat, iluntasunak bere inperio osoa iragartzen duen mende bat baizik, gero eta pauso biziagoan doan ilunkera baten ondorenekoa.

Iraultza proletarioaren testuinguruan, historikoki konpondu gabeko arazoa izan dira metabolismo sozialaren berrantolaketa forma eta edukia, are gehiago gerra iraultzaileko egoera batean, non salbuespenak arauaren lekua hartzen duen. Gerraren eskakizunek benetan zailtzen dute iraultzaileek beren ekintza gidatzeko erabiltzen dituzten eskemak modu kontsekuentean aplikatzea, modu horretan, sarritan doktrina-printzipioekin lotutako praktikak hartu dituzte derrigorrean.

Hori dela eta, gure klasearen borroka-esperientzien kritika erradikala egitea dagokigu, gerra eta birsorkuntza soziala, paradoxikoki, bata bestearen aurkako gerran egon baitira.

XX. mendeko iraultzen esperientziak frogatzen digunez, fusilik gabeko etsaiak, boteretsuagoak ez ezik, mundu zaharra deuseztatzen deitutakoen lerroetatik beretatik ere sortuak ziren

ILDO MILITAR PROLETARIOARI BURUZKO GOGOETA OROKORRAK

Gerra ia gizartea bezain zaharra da. Lehenengo komunitateek klase gizartea ahalbidetu zuten lanaren banaketa eta jabetza-harremanak garatu zituztenetik eta komunitateen arteko harremanak eta interes-talkak gertatzen hasi zirenez geroztik, gerrak epaile gisa jardun du indarkeriaren auzitegian; izan ere, zuzenbidearen eta zuzenbidearen arteko borrokan, azken hitza indarrak izaten du beti.

Gatazka sozialak indarkeriaren edo indar gordinaren bidez konpontzeko berariazko esparrua gerraren eremua da. Esparru horren araudiak eta espezializazioak arlo militarren bide ematen diote, bere doktrina, arte eta teknika espezifikoekin. Baina gerra ez da egiteagatik egiten, eta ezin da bere baitan ulertu. Engelsek, Eugen Dühringekin izandako eztabaidan, materialismoaren ikuspegitik adierazten du indarkeria ez dela faktore “historikoki funtsezko” bat, helburu baterako bitartekoa baizik. Dühringek jabetza indarkerian oinarritzen zuen; Engelsek, aldiz, jabetzaren instituzioan oinarritzen zuen indarkeriaren baliabidea. Ez balego zertaz jabeturik, ez gauzez jabetzeko modua ematen duen baldintzarik, ez horretarako beharrik, ez eta, azken batean, jabetzaren instituziorako posibilitate-baldintzarik ere, indarkeriak aukera izango luke beste arazo batzuk ebazteko, baina ez litzateke izango jabetza eratzeke arrazoa.

Era berean, indarkeria ezin izan daiteke menderakuntzaren arrazoia, hura gauzatzeko bitartekoa baizik. Menderakuntza gauzatzeko, beharrezkoa da “etekin ekonomikoa” edo indarkeria erabiltzeko bestelako onura edo interesen bat egotea.

Komunitate sozial bakoitzak bere bizi-bitartekoak modu jakin batean ekoizten ditu, eta ekoizteko modu horren izaeraren arabera moldatzen da komunitatea. Gutxi garatutako komunitateetan, botere-funtzio horiek ere ez daude oso garatuta, eta nahastu egiten dira familien edo tribuen barruko lan-banaketarekin. Gizartearen baitako lan-banaketa eskala zabalduan garatzen eta gizartea klasetan banatzen hasten denean, orduan sortzen da politika aparteko funtzio gisa. Politika gobernua- ren eta legeen artea da. Modu orokorrean arautzen duen boterea da, eta araudi horren mende jartzen du gizarte-komunitate jakin bat. Orain arte existitu diren gizarteak, egungo gizarte kapitalista barne, klasetan banatuta egon dira, eta klase horiek ekoizpen-moduan eta gizarte-aberastasunaren jabetze- eta banaketa-moduan dituzte beren sustraiak.

Gizarte-harremanen multzo jakin bat kontrae- sanetan hasten denean ekoizpen-modu zaharraren oinarrien gainean garatzen den ekoizpen-modu berriarekin, gatazka-garai bat irekitzen da eza- rritako botere politikoaren eta hura ordezkatzera datorren klasearen edo klaseen artean. Borroka

horretan agertzen da Politika Iraultzailea: botere politikoa hartzearen edo desegitearen artea. Poli- tika, dela *status quo*arena, dela iraultzailea, gerraz baliatzen da bere helburu estrategikoak lortzeko. Gerra, iraultzaileak ez diren garaietan, komunita- teen arteko bakearen edo erasoaldien aldeko gerra da. Helburua, nolana ere, ekoizpen-modu jakin bat erreproduzitzea da. Bestalde, gerra iraultzaile- ak, bide militarretik, botere politikoaren konkista bilatzen du. Bi kasuetan, politikaren funtzio edo modu bat da gerra; beti agertzen da politikaren mende.

Indar militarrek politika azpiratzen duenean, politika militar bat ari da gidatzen, etsaiaren aur- kako garaipenean soilik oinarritua, beste interes batzuetan ez bada. Azkenik, Clausewitz jarraikiz, gerra beste bide batzuetatik egindako politika dela esaten denean, ohikoa da alde batera uztea politika ekonomia kontzentratua besterik ez dela dioen tes- sia –espezifikoki marxista–, hau da, politika, azken batean, ekoizpen-moduaren eta hari dagozkion klase-interesen mende dagoela dioena.

Politika Iraultzaile Proletarioa botere politikoa proletarioen emantzipazio ekonomikorako, hau da, emantzipazio unibertsalerako konkistatzearen ar- tea da. Kapitalismoak gerra kapitalistei izaera be- reizgarria ematen dien bezala, kapitalismotik sor- tzen den ekoizpen-modu berriak, komunismoak,

Kapitalismoak gerra kapitalistei izaera bereizgarria ematen dien bezala, kapitalismotik sortzen den ekoizpen-modu berriak, komunismoak, izaera bereizgarria ematen dio gerra proletarioari. Izaera hori honela laburbil daiteke: erabateko emantzipazioaren aldeko gerra da; gerra horretan, proletariotzak klase dominatzaile bihurtu nahi du, bere diktadura klase erreakzionarioen aurka gauzatu, eta oinarriak ezarri klaserik gabeko gizarte baterako

izaera bereizgarria ematen dio gerra proletarioari. Izaera hori honela laburbil daiteke: erabateko emantzipazioaren aldeko gerra da; gerra horretan, proletariotzak klase dominatzaile bihurtu nahi du, bere diktadura klase erreakzionarioen aurka gauzatu, eta oinarriak ezarri klaserik gabeko gizarte baterako, hau da, esplotaziorik eta zapalkuntzarik gabeko baterako. Ildo militar proletarioak hori ahazten badu, hau da, bere helburua gizateriaren emantzipazioa eta klaserik gabeko gizartea ezartzea dela, orduan gerrak bere izaera emantzipatzailea galtzen du, eta botere politikoa bihurtzen da gerra horren helburua, etsaiaren deuseztapena, baina ez emantzipazioa.

Gerra iraultzailea gatazkaren eremuan ebatzi beharreko kontu tekniko hutsa ez den heinean, ezta boterea konkistatzeko borroka hutsa ere, proletarioen emantzipazio ekonomikoaren helburu gorenak izan behar du haren oinarria, berak determinatzen baititu haren gainerako momentuak, hala nola kanpaina-planei buruzko xehetasun taktikoak. Iraultzak batez ere hiru frontetan egiten du eraso. Lehenengoa eta agerikoena botere politikoarena edo gizartearen gobernuarena da. Fronte horretan, klase iraultzaileak boterea eralda edo berreraiki dezake bere gobernu-premien arabera. Bigarren frontea ekonomikoa edo ekoizpen-moduarena da. Horretan, klase iraultzaileak azken ondorioetara ino garatzen ditu aurreko ekoizpen-moduan ernamuntzen ari ziren harreman ekonomikoak. Hirugarren frontea kulturala da, eta haren funtzioa gizartearen gogoia prozesu historikoaren arrazionaltasunarekin lerrokatzea da.

Pentsamendu komunista korrante batzuek estrategia militar proletario baten existentzia edo prestaketa azpimarratzen dute politikaren izaera iraultzailearen benetako frogara gisa. Hala ere, garrantzitsuagoa litzateke, gertaera historikoak ikusita, frogara hori “ildo ekonomiko” proletarioan kokatzea, ekoizpen kapitalista iraultzeko moduaren kontzientzia argia izatean, alegia. Are gehiago, arlo horri dagokion noraeza da, ziur asko, joan den mendeko iraultza proletarioen zikloko irakaskuntza go-rena eta unibertsalena; izan ere, nahiz eta politika

agintean egon, botere politikoa konkistatu eta proletarioek armada gorri boteretsu eta garaileak antolatu, Kapitalaren botere ekonomikoak esfortzurik gabe irentsi zituen fusilak, sobietak eta dazibaoak.

Ez dagokigu epaitzea ea zerbait aurreikusgarria edo argitasun teoriko falta izan ote zen; sintetizatzeke esperientzia bat dugu aurrean, eta hori egiteko erabateko konpromisoa. Jarraian, gaiari buruzko sarrera-ohar labur batzuk emango ditugu, lagungarri izan dadin azterketa eta sintesi historikoaren ariketa bideratzeko, hura ordezkatu beharrean.

***Pentsamendu
komunistako korrante
batzuek estrategia
militar proletario
baten existentzia edo
prestaketa azpimarratzen
dute politikaren izaera
iraultzailearen benetako
frogara gisa. Hala ere,
garrantzitsuagoa litzateke,
gertaera historikoak
ikusita, frogara hori “ildo
ekonomiko” proletarioan
kokatzea, ekoizpen
kapitalista iraultzeko
moduaren kontzientzia
argia izatean, alegia***





GIZARTEAREN BERRANTOLAKETA KOMUNISTA

Aurreko kontsiderazio orokorrak ezarri ondoren, eta iraultza proletarioan indar militarrek eduki beharreko lekua epaitzeko, ondo ulertu behar da prozesu historikoa nora doan eta, beraz, iraultza horren berezitasuna zein den. Iraultza proletarioa gizarte-formazio kapitalistan dauden potentzien gorpuztea da, klaseek izateko arrazoirik ez duten ekoizpen modu baterantz daramaten potentzien gorpuztea alegia. Ekoizpen-modu kapitalistaren garapenak berak bere burua desagitera jotzen du; bada, proletariotza iraultzailea prozesu horren asimilazio kontzientea da.

Metabolismo sozialaren berrantolaketa da prozesu honen alderdirik garrantzitsuenak, eta horren mende daude gainerako gaiak, prozesu horren momentu gisa. Gerra iraultzaile proletarioa eraldaketa sozial hori indarrez inposatzea da. Ekoizpen-modu kapitalistaren oinarria da lanaren baldintza objektiboak haren baldintza subjektiboetatik bereiztea. Horrek esan nahi du badela klase bat ekoizpen- eta bizi-bitartekoen jabetza duena, eta beste klase bat, berriz, horietaz gabetua. Lehenengoa kapitalisten klasea da, bigarrena proletarioena.

Ekoizpen kapitalista klase batek beste bat esplotatzean oinarritzen den heinean, hartan indibidualtasun askea eta gizabanakoen garapen osoa ukatzen dira, nahiz eta, egiazki, ekoizpen-modu kapitalistak eratutako ekoizpen-indar materialen eta harreman sozialen garapen-mailari esker diren gauzagarriak. Garapen horrek murriztu egiten du erabilera-balioak ekoizteko behar den lan-denbora, baina ez du lanaldia murrizten. Langileak beharrezko ez zaizkionean, langabezia egonkorrera edo aldizkakora bidaltzen ditu, Kapitalaren interesetarako beharrezkoak ez diren biztanle gisa. Ekoizpena gero eta sozialagoa eta konbinatuagoa da, baina jabetzeak pribatua izaten jarraitzen du.

Horiek eta beste adierazpen batzuek erakusten dute Kapitalaren beharrak ez datozela bat gizartearen premiekin, edo, bestela esanda, gatazka bat dagoela ekoizpen-indarren garapenaren eta ekoizpen-harremanen artean. Iraultza sozialista kontraesan horren adierazpena da, non proletariotzak burgesia desjabetzen duen eta ekoizpen-bitartekoak behar kolektiboan zerbitzura jartzen dituen. Iraultza horretatik, ekoizleen elkartzeko askean eta ekoizpen-bitartekoen jabetza kolektiboan oinarritutako ekoizpen-modua sortzen da. Ekoizpena norbanakoei subordinatzen zaie, eta haiek kontrolatzen dute, ondare komun gisa eta plan baten arabera.

Elementu horiek, ekoizpen-bitartekoen izaera kolektiboa eta ekoizpenaren plangintza, ez dira bateragarriak soldatapeko lanaren existentziarekin. Lana honela banatzen da: lehenik, gizarte-premiak zehazten dira, eta, ondoren, horiek betetzeko behar diren orduak zenbatzen dira. Lanaldi globala neurri berean banatzen da horretarako egokiak diren gizarteko kideen artean. Ekoizpen-modu kapitalista komunista bihurtzeko lehen fasean, banaketak edo norbanako bakoitzak produktueta duen parte-hartzeak bat egiten du norberak ekoizpen-prozesuan egiten duen ekarpenarekin. Historikoki proposatutako baliabideetako bat ordutegi-bonuak edo lan-bonuak izan dira. Horiek ez dute zirkulatzen, pertsonalak direlako –pertsona batek bakarrik erabil ditzake–, transferiezinak direlako –aurrekoaren berehalako ondorioa– eta ekoizpenerako sozialki behar den lan-denbora adierazi beharrean,

ondasun bat ekoizteko behar izan den lan-denbora efektiboa adierazten dute. Banaketa-baliabide horrek ekoizle elkartuen gizarte batean izan ditzakeen bertuteak eta akatsak paradigmaticoki azalduta daude Marxen “Gotharen programari kritika” izeneko glosetan. Gizabanako bakoitza desberdina da, bizi-egoera desberdina du eta premia asko ditu. Neurri berdinetik –lan-denboraren arabera– abiatuta bakoitzak kontsumoan zer parte-hartze izango duen zehazteak gizabanako batzuei mesede egitea lekarke.

Hori dela eta, komunismoaren goragoko faseren batean –ez “gorengo fasean”–, eskubideak ez lirateke berberak guztientzat, bakoitzak bere gaitasunaren arabera emango lukeelako eta bakoitzari bere beharren arabera emango zaiolako. Laburbilduz, ekoizpen-bitartekoen jabetza kolektiboan oinarritutako ekoizpen-modua lortzeko, beharrezkoa da proletarioek horiek desjabetzea, eta, horretarako, botere politikoa hartzea –alderdi politiko bat eratzea eskatzen duena– edo gizartearen zuzendaritza nagusiaren esfera *sine qua non* baldintza da. Bitarteko horiek desjabetu eta gizarte-premien eskura jarri ondoren, lana planifikatu eta gizarteko kideen artean banatzen da. Horrelako gizarte batean, produktua ez dira balio gisa aurkezten, eta, beraz, ezta merkantzia gisa ere, ez baitira trukutzen. Soldatapeko lanaren abolizioa berezko ondorio gisa dator. Klaseen abolizioa ere bai.

EKOIZPEN EREDUAREN ERALDAKETA GERRA IRAULTZAILETAN

Iraultza proletarioa ez da soilik gizakien boron-datetik kanpo garatu ziren oinarri materialetan sostengatzen, baizik eta haren baldintzen artean dago klase baten borondatea ere, proletariotzarena, alegia, zeina nahiko heldua baita gobernatzeko. Horretarako, kontzientzia iraultzailea ez ezik, Kapitalaren dominazio politiko eta biolentzia ordeztera datorren egitura instituzionala ere behar du.

Errusiar Inperioan, egitura instituzional horrek sobieten forma hartu zuen. Sobieten garapenak, bereziki Petersburgokoarenak, botere bikoizteko egoera bat sortu zuen; egoera horretan, elementu batzuk ez zirenez gai izan iraultza sozialistaren

garaia heldua zela ikusteko, boltxebikeek ekimena hartu zuten, eta botere bikoitzeko egoera hori – naturala zen moduan, ezin zuen luzaroan iraun- botere politikoa konkistatzeko eta sistema sobietarra botere bakar moduan ezartzeko egoera bilakatu zuten.

Urriko Iraultzaren ondoren, gerra zibila etorri zen eta, gerra horrek, epe erlatiboki labur batean, nabarmen ahuldu zuen iraultzaren izaera sozialista. Demokrazia sobietarrak degenerazio handia izan zuen: Alderdi Boltxebikeak kontseiluen sistema ordeztu zuen goitik, eta haiei izaera ia aholku-emailea eman zien. Erantzuna Kronstadten entzun zen; han, alabaina, ez zegoen argi gizartea nola eraldatu behar zen: sobieten izaera demokratikoa berreskuratu nahi izan zuten, baina, aldi berean, “merkataritza-askatasuna” aldarrikatu zuten. Gerra-komunismoa martxan jartzean, ekonomian gauzatutako eraldaketei dagokienez, eraldaketa bakarrak gerra-ekonomia kapitalistak egoera berean egingo zituenak izan ziren: ekoizpena izugarri handitu, eta baliabideak gerra-beharren zerbitzura jarri ziren. Gerra-komunismoak erantzuten zion eta erreproduzitzen zuen egoera prekarioak ahuldu egin zuen boltxebikeen eta nekazarien arteko harremana. Ez zen une egokia gizartearen eraldaketa ekonomikorako; hori horrela, etorkizunerako utzi zen eraldaketa hori, mehatxu kontrairaultzea gairatzen zuten unerako, hain zuzen.

Nahiz eta teorikoki ia gauza ziurra zen armada proletarioak herri-milizien forma hartu behar zuela –herri matxinatua–, egoerak armada erregularraren formula erabiltzera behartu zituen –1918ko martxoaren 15ean Armada Gorria eratu zen–, bai eta teknikari militar tsaristak errekrutatzea ere, zeinek aurrerago arazoak eman baitzituzten. Egia da armada erregular bat ez zela sekula izan Armada Gorriaren antolakuntza bezain demokratikoa, baina, egiaz, printzipioetan egin zen kontzesio bat gehiago izan zen Armada Gorria bera, koiunturaren fruitu. Azkenik, Estatu sobietar berriaren kudeaketari izaera funtzionala emateko, funtzionario tsarista ohi asko enplegatu behar izan zituzten, eta hori ustelkeriaren eta erreakzioaren foku bihurtu zen, eta aurre egin behar izan zioten aurrerago.

Iraultza burgesa egin eta, hura egonkortzen utzi beharrean, zuzenean iraultza proletariora pasatzea. Errusian, bi une horiek bereizita egon ziren nabarmen, baina denboran oso jarraiak; Txinan, aldiz, prozesu beraren parte izan ziren bi-biak

Errusia atzeratuan bezalaxe, Txinan ere iraultza demokratiko-burgesa eta iraultza proletarioa gurutzatu egin ziren, hainbeste, non XX. mendeko iraultza proletarioaren programa komuna “iraultza etengabea” baitzen: kontzeptu horren jatorria Frantziako Iraultzan dago, eta haren esanahia, marxistentzat, iraultza burgesa egin eta, hura egonkortzen utzi beharrean, zuzenean iraultza proletariora pasatzea zen. Errusian, bi une horiek bereizita egon ziren nabarmen, baina denboran oso jarraiak; Txinan, aldiz, prozesu beraren parte izan ziren bi-biak. Txinaren formula Demokrazia Berria izenekoa zen: iraultza burgesaren alderdia Kuomintang-a izan zen; iraultza proletarioaren alderdia, Txinako Alderdi Komunista. Gainera, iraultza demokratiko-burgesak nazio-askapeneko gerra-forma hartu zuen, indar atzerritarrek Txina okupatu izanaren ondorioz. Horren eta Internazional Komunistaren presioaren eraginez, lankidetzan hasi ziren Kuomintanga eta Txinako Alderdi Komunista, eta gero eta nabarmenago agertu ziren bien arteko desadostasunak, harik eta 1927an talka agerikoa izan zuten arte.

KOLABORAZIOA — Zaharra garaitu eta berria marraztu







Txinako esperientziak proletariotza iraultzaile-arentzat duen interesik handiena gerraren planteamendua da, “luzaroko herri-guda” kontzeptuan sintetizatua. Txinako egoera konkretuan, nekazarien klasea –klase nagusia– zegoen deitua iraultzairen indar nagusi izatera, baina proletariotzak izan behar zuen prozesuaren indar determinante eta buruzagia. Beharrezkoa zen nekazaritza-iraultza gidatzea –Stalinen iritziaren kontrara–, zeina egin gabe baitzegoen eta gainerako indarrek utzia eta atzeratua baitzuten une hartan. Txinako Alderdi Komunistak, Maok gidaturik, nekazari-masen

elementurik aurreratuenak konkistatzeko apustua egin zuen, gero nekazari-masa zabalak konkistatzeko haiek Herri Gudaren barruan militarki antolatuz. 1927ko abuztuaren 1ean Herri Guda hasi zen, bigarren gerra zibila, eta, aldi berean, Armada Gorria eratu zen. Herri Gudaren izaera espezifikoak nekazarien eta langileen masak bateratu zituela iraultzan, haiek militarizatuz, eta Botere Berriko organoak sortu zirela komunistek kontrolatutako guneetan.

Horrela, nekazari eta langile masa horiek iraultzairen subjektu aktibo bihurtuko ziren, fun-

tzio militarrek armada espezializatu baten esku uzti beharrean –une hartan, urrun zegoen profesional izatetik–, eta, halaber, botere-instituzioak ezarriko ziren, nazioaren lurralde osoan garai-pena lortu arte atzeratu beharrean zeregin hori. Matxinada-ereduan, masa horiek lehenengo konkistatuak, gero armatuak eta azkenik matxinadara bultzatuak izango ziren; ordea, Herri Gudaren ereduaren helburua zen masak konkistatzeko armamentua ematea, haiek gerrari lotzea eta gune askatuetan boterea erabiltzea. Internazional Komunistak aurreneko eredu horri jarraitzen zion; Txinako Alderdi Komunistak, berriz, bigarrenari. Landa-eremuetan Botere Berriko organoak sortzen eta Armada Gorria sendotzen ari ziren bitartean, hiriguneetan lan “europarragoa” egiten zen, hau da, propagandaren eta sindikatuen bidez eta enpresa-zelulak sortuz konbentzitu nahi zituzten langileak. Funtsean, horretan zetzan hiriak landa-eremuetatik inguratzeari buruzko plan eza-guna. Herri Gudak, laburbilduz, zenbait fase batu nahi zituen prozesu berean: masak gidatzea, haiek boterean aritzeko ahalduntzea eta proletariotzaren diktadurako organoak sortzea.

Alabaina, eta XX. mendeko esperientzia gehienetan bezala, kontu politikoak gainjarri zitzaizkien ekonomikoei; hala, funtsean, ekonomia kapitalista erreproduzitzen jarraitu zen industriaren arloan atzeratua zegoen herrialde hartan. Zenbait urte geroago Iraultza Kulturala egin zen, iraultzak aurkitu zituen mugak gainditzeko helburuz; alegia, klase sozialak eta lehengo ekoizpen modua bizi-raunarazten ari zela, eta ez zuela haiek gainditzeko lortu. Ekoizpenari dagokionez, lan intelektualaren eta eskuzkoaren arteko bereizketa erreproduzitzen zen, eta, aldi berean, ukigabe jarraitzen zuen soldata-sistemaren bidez egiten den produktu sozialaren banaketak. “Maiatzaren 7ko eskolak” izenez ezagutzen direnen helburua lanaren banaketa sozial hori gainditzeko zen, koadro tekniko eta intelektualak landaguneetara bidaliz eskuzko lanak egitera, baina zeregin-aldaketa horiek aldi baterako baino ez zirenez, salbuespena baino ez ziren funtsean berdin jarraitu zuen prozesu sozial baten barrenean. Ekoizpen modu kapitalista gainditzeko ezintasuna –izan arlo ekonomikoan zein haren forma administratiboan– ondo erakusten

duen beste ekitaldi bat izan zen 1967ko otsailean Txinako Alderdi Komunistak eta Maok berak Shanghaiko Komuna abandonatu izana, nola eta estatuaren botere-organo zaharren alde –aliantza hirukoitzeko komiteak–. Errusian bezala, Estatua gizartearen gainetik zegoen, nahiz eta estatu-gaie-tan parte hartzeko aukera ematen zion gizarteari, era mugatuan betiere: kasurik onenean, Estatua herriaren zerbitzura zegoen. Arlo kulturalen, Liburu Gorria izan zen harreman sozialen petrifikazioaren sinboloa.

Hizpide dugun gaiarekin lotura estua duen beste gai bat Espainiako Gerra Zibila izan zen, esaten baitzen botere-dualitate bat izatera iritsi zirela han, Errusian iraultzaren aurretik izan zen antzekoa. Katalunian, Milizia Antifaxisten Komite Zentrala eta Ekonomia Kontseilua ziren Errepublikaren botere kapitalistaren aurrean proletario-boterea ordeztara etorritako instituzioak. Ordea, botere proletario hori bigarren mailan geratu zen ia Errepublikaren hasieratik, eta Estatu kapitalistaren luzapena izaten bukatu zuen, Estatuak aginduak ematen baitzizkion Komiteari zein Kontseiluari. CNTk, zenbait grebaren aurrean, lanera bueltatu beharra aldarrikatu zuen, bereziki borroka antifaxista baliabidez hornitzea zego-kien industrietan. Milizien Komiteak, Defentsa Ministerioari atxiki zitzaionak, lan aktiboa egin zuen Errepublikak emandako aginduei men egiten ez zieten langileak armagabetzeko, faxismoari aurre egitearen aitzakia erabiliz. Gauzak horrela, hemen ere agerikoa da erakunde proletarioek “traizio” egin behar izan zietela beren printzipioei. CNTk, Estatua suntsitzeko lan egitetik urrun, haren mende jarri zuen bere burua; autoritarismoari gerra deklaratu ordez, era autoritarioan agertu zen langileen aurrean, eta haiek gerrarako ekoiztera behartu zituen; Marxek mutualistei mende erdia lehenago arrazoiz kritikatuak zizkien akatsak zituen haien Ekonomia Berriak. Esan gabe doa marxismoa edo sozialismoa inspirazio zuten alderdi gehienek, kasu batzuetan POUM izan ezik, hasieratik egin zutela bat Estatu kapitalistarekin. Finean, langile-mugimenduaren erakunde gehienak Errepublikaren defentsan jarri izanaren ondorioz, ez zen lekurik izan metabolismo sozialaren eraldaketarako.

ONDORIOAK

Aurreko lerrook abiapuntua besterik ez dira ulertzeko ekoizpen kapitalista nola bihurtzen den ekoizpen komunista, bai eta eraldaketa horrek gerra iraultzaileetan zehar historikoki izan zituen mugak ulertzeko ere.

Esperientzia horiek erakusten dutenez, eraldaketa hori zaila da, baina zeregin horiek ez dira atzeratu behar indar militar proletarioak burgesen gainean erabateko garaipena lortzen duten unera arte. Txinan, gerrak berak sortu zituen botere berriko organoak, botere zaharra ordeztara zetozenak; izan ere, Errusian ez bezala, organo horiek ez ziren existitzen eraso armatuaren aurretik, eta, aldi berean, Txinako Alderdi Komunista gertakarien joanaren mende uzteko prest ez zegoen zenbait zeregin konpondu nahi zituen lerro militarrek. CNT eta haren Ekonomia Berriak ere gerraren esparruan aurreikusi zuten gizarte berria, nahiz eta, indar komunistek bezalaxe, potentzialitate hori borroka antifaxistaren asmoen, eta, beraz, Estatu kapitalistaren mende jarri zuten.

Ezin da aurreikusi etorkizuneko iraultza proletarioak enfrentamendu militar ageriko baten edo arlo militarra bigarren mailan duen enfrentamendu politiko baten forma hartuko ote duen. Gainera, iraultza proletarioak ziurrenik bide oso desberdinak hartuko ditu herrialde bakoitzean, haren egoera partikularragatik. Pentsamendu estrategikoak exijitzen digu, ordea, ez atzeratzea botere hartzearen unera arte botere politikoaren formari eta ekonomia berriari buruzkoak. Ezinbesteko beharra da proletariotza klase menderatzaile moduan eratzea, eta ameskeria hutsa da pentsatzea hura gabe posible dela gizartea osoki berrantolatzea, baina, esperientzia historikoa ikusita, bete-behar bat da erasoaldi iraultzailerako baldintzak prestatzea arlo politiko eta ekonomikoan. Ekoizpen-aparatuan botererik ez den eta protobotereko organorik —izan sobietak, izan kontseiluak— eraturik ez dagoen tokietan, sortu egin beharko dira halakoak; egoera ez-iraultzaileetan, behar bada Errusiako prozesuaren tankerako baten bidez;

iraultzako, gerrako edo desegonkortasun sozial handiko egoeretan, akaso Txinako edo Espainiako Gerra Zibileko prozesuen antzekoen bidez.

Amaitzeko, hauek dira gure zereginak: Kapitalaren botere ekonomikoaren abolizioa ondo kontzeptualizatzea, XX. mendeko iraultzek hari eskas erantzun ziotela onartzea eta haien oinordetzatik ikastea, zentzu positibo zein negatiboan. Eta hori are garrantzitsuagoa da orain, ojiba nuklearrak Damoklesen ezpata bezala gainean dabilzkgun une historiko honetan, non kapitalismoak gero eta modu sinesgarriagoan egiten digun mehatxu “après moi le déluge” esanez. ●

Ezin da aurreikusi etorkizuneko iraultza proletarioak enfrentamendu militar ageriko baten edo arlo militarra bigarren mailan duen enfrentamendu politiko baten forma hartuko ote duen. Gainera, iraultza proletarioak ziurrenik bide oso desberdinak hartuko ditu herrialde bakoitzean, haren egoera partikularragatik



ESTATUA DISOLBATZEN

ERRUSIAKO
IRAULTZAREN HAINBAT
ERRONKA

Texto — **X. G. Axpe**

Imagen — **Gaizka Azketa**





1917ko otsailetik aurrera, Errusiako tsarismoaren gainbeherarekin batera, estatu aparatu zaharra suntsitu eta berri baten ezarpena iraultzako gai politiko nagusia bihurtu zen. Urte bereko urrira arte, Otsaileko Iraultzan sortutako bi botere independenteen arteko harremana (Behin-behineko Gobernua eta sobietak) tarteka gatazkatsua, tarteka baketsu samarra eta batzuetan elkarlanekoa ere izan zen. Artikulu honek Errusiako estatuko makineria zahararen suntsiketaren alderdi nagusi batzuei buruz dihardu, Marxek Parisko Komunari buruz egindako analisietatik abiatuta; eta bereziki, bertako Polizia-ri eta iraultza defendatzeko helburua izango zuen herri armatu baten sorrerari buruz. Azkenik, eta eranskin moduan, botere sobietarrak etxebizitzaren gaiaren gainean egindako kudeaketa mahaigaineratuko da.

MARX ETA PARIS ARMETAN ALTXATUA

Gerra zibila Frantzia lanean ageri da proletalgoaren diktadurari buruzko deskribapen sutsu eta zehatzena, eta Parisko Komunari da bertan hizpide, 1871ko martxoaren 18an izendatua. Komunaren auziaz luze hitz egin da marxismoaren historian zehar, eta artikulu honen helburua ez da, beraz, hura zehatz-mehatz aztertzea. Hala ere, beharrezkoa da esperientzia horretatik Marxi interesgarriak iruditu zitzaizkion eta ondoren Errusiako Iraultzan oinarritzakoak izango ziren ezaugarri batzuk laburki nabarmentzea.

Marxentzat, Komunaren sorreraren oinarriak herriaren armatze orokorra (Guardia Nazionalaren berrantolaketari esker gauzatu zen, eta haren kide gehienak langile klasekoak ziren), eta, ondorioz, Poliziaren eta armada iraunkorraren suntsiketa izan ziren. Izan ere, horixe izan zen Komunaren lehen dekretua. Marxen hitzetan, Paris armetan altxatu izanaren errealitateak “instituzio iraunkorra” bihurtu behar zuen (Marx, 2016, 542. or.). Komunak botere legegilea eta betearazlea fusionatu zituen. Funtzionario publikoak hautagarriak eta ezeztagarriak ziren, eta horrek Estatuaren aparatu burokratiko zahararekin hausten zuen. Parlamentu burges tradizionalen funtzionamenduari hutsiz, auzoetan, hiritarrek eguneroko arazoek gaineko errebakiak hartu eta kudeatzen zituzten, Paris guztiak hautatutako gobernu komunalarekin batera.

Ezaugarri horiek guztiak ondo laburtuta daude Guardia Nazionalaren “Komite Zentralaren Martxoaren 18ko Manifestuan”. Marxen hitzetan: “Pa-

risko proletalgora [...] ohartu da badela garaia zeregin publikoen zuzendaritza bere eskuetan hartzeko” (Marx, 2016, 539. or.).

Leninek berreskuratu egin zuen masek zeregin publikoak beren esku hartzearen ideia *Estatua eta Iraultza* lanean, Otsaileko Iraultzaren osteko aparteko egoera politikoaren erantzun moduan. Leninek, Marxen eta Engelsen Parisko Komunako esperientziari buruzko analisiak berreskuratu, eta Errusian boterea hartzeko agitazio programa bihurtu zituen.

HERRI MILIZIA ETA LANGILE MILIZIA

1917ko otsailaren amaieran, Petrograd hiriko (egungo San Petersburgo) langile protestetara soldadu kopuru handia batu zen, eta Errusiako gobernu tsaristarekin amaitu zuten. Mugimendu horren baitan bi botere-polo sortu ziren: Behin-behineko Gobernua eta sobietak. Lehen gobernu burges bat zen, eta Errusiako boterea harena zen formalki (baina errealitatean ez). Sobietak, berriz, langile, soldadu, eta nekazarien kontseiluak ziren. Masen eta alderdi sozialisten iniziatibaz sortu ziren, beren arazoei aurre egiteko: bazterketa politikoa, pobrezia eta gerra (lurra ere bai, nekazarien kasuan). Formal-

Langile milizien lorpen garrantzitsuenetariko bat fabriketako nagusiei 8 orduko lanaldiak ezarraraztea izan zen. Erabaki hori sobietek hartu zuten tsarra boteretik kendu zutenean. Adibide horrek argi erakusten du garai hartan sobietek izandako botere exekutibo eta legegilearen fusioa

ki Errusiako gobernu legitimotzat hartzen ez baziren ere, sobietek paper nagusia izan zuten Otsaileko Iraultzatik aurrera: autoritate erreala gorena izan ziren barruti industrialetan eta Errusiako hainbat hiritan, eta herri mailako langile-gobernu erreala moduan funtzionatzen zuten, Urrian boterea hartu zuten arte.

Otsailetik aurrera, ordena publikoaren eta polizia-aren auzia erabakigarria izan zen iraultzatik eratorritako bi botereentzat. Petrograden bi organo armatu mota sortu ziren aldi berean: herri milizia (herri-Dumari lotutakoa, formalki aitortutako udal autoritatea) eta langile miliziak (Petrogradeko Sobietak deitutakoa, baina hein handi batean langileen iniziatibaz sortutakoa). Red A. Wade historialariak (1984) otsaileko eta urriko botere-dualitateari buruzko deskribapen oso interesgarriak egiten ditu iraultzan sortutako bi miliziak oinarri hartuta.

Bere ikerketaren arabera, auzia ez zen mugatzen milizia batek izaera burgesa eta besteak langile-izatera soilik. Izan ere, Urriko Iraultzaren osteko lehen egunetan, herri milizia Guardia Gorriaren esanetara jarri zen ordena publikoa mantentzeko asmoz. Wadek azaltzen du herri milizian langile

kopuru handia sartu zela iraultzak sortutako ordena publikoa bermatzeko intentzioarekin. Aldi berean, kontuan izan behar da Behin-behineko Gobernuaren eta sobieten arteko harremanak forma anitzak hartu zituela otsailetik urrira, bigarrenen ordezkaritza aldakorren ondorioz. Besteak beste, boltxebikeek ez zuten izan Behin-behineko Gobernuari buruzko jarrera irmorik apirilean Lenin bueltatu arte.


Martxoaren erdialdean, Petrogradeko milizia-klase guztietan 20.000 pertsona inguru zeuden izena emanda, eta horrek buruhauste handiak ekarri zizkion Behin-behineko Gobernuari, hilabete horren hasieran sortu baitzen. Langile miliziak isolatuta eta zentralizazio politiko argirik gabe zeuden: ez zegoen langile milizien talde bateraturik (horregatik hartu zituzten hainbat izen desberdin garai hartan zehar).

Petrogradeko egoera ezohikoa zen benetan, baina hala ere, iraultza garai guztietan guztiz normalak dira horrelako egoerak. Hirian bazeuden langile miliziek soilik patruilatzen zituzten barrutiak (gehienak bertako lantegietatik sortutako miliziak). Erdiguneko auzo burgesak herri miliziaren kontrolpekoak ziren, eta, beste eremu askotan, bi milizia motak egon ohi ziren aldi berean. Langile mi-



lizien lorpen garrantzitsuenetariko bat fabriketako nagusiei 8 orduko lanaldiak ezarraztea izan zen. Erabaki hori sobietek hartu zuten tsarra boteretik kendu zutenean. Adibide horrek argi erakusten du garai hartan sobietek izandako botere exekutibo eta legebilearen fusioa. Aldi berean, milizien gastuak ordaintzea (soldatak barne) fabriken esku gelditzea

lortu zuten. Gainera, haien funtzionamendua guztiz demokratikoa zen. Izan ere, milizianoek hautatzen zituzten ofizialak (Parisko Komunako Guardia Nazionalan horrela egiten zen, eta soldadu iraultzaileek Errusiako armadan ere hala inposatu zuten garai hartan). Wadek eskaintzen dituen hainbat adibide-tan ikus daiteke langile miliziek langileen eta fabri-



ketako nagusien artean egiten zuten bitartekari lana, zeinetan beren aldarrikapenak onartzera behartzen zituzten nagusiak. Fabriketako egunerokotasunean zuten parte-hartzeari eta langileekin sortutako harreman estuari esker, langile milizien ospeak gora egin zuen progresiboki masen artean, mentxebike eta eseristen artean behera egin zuen ahala.



BOLTXEBIKEAK ETA GUARDIA GORRIAREN ERAKETA

Martxoan zehar, milizien eta herriaren armatze orokorraren arazoei aurre nola egin hasi ziren pentsatzen boltxebikeak. Otsaileko jardunaldietan milizien sorrera gutxietsi zuten; izan ere, uste zuten garrantzitsuena Petrogradeko garnizioak eta orokorrean herrialdea beren alde jartzea zela. Hala ere, Errusiako botere berrien sorrerarekin bat, uste zuten aurretik aipatutakoak garrantzitsuak zirela bi arrazoiengatik. Lehenik, iraultzak ordu-ra arte lortutako konkistak defendatzeko, eraso erreakzionarioen aurrean prest egotea bermatzeko. Bigarrenik, hain ezegonkorra zen egoera politiko batean, prest egoteko iraultzak izan zitzakeen balizko garapenetarako. Martxoan eta apirilean zehar, langile milizien organismo bateratu bat egiten saiatu ziren boltxebikeak. Horrela, miliziak ez ziren sakabanatuta egongo, eta corpus beraren parte izango ziren, norabide politiko argiago bati erantzuteko. Ordea, Guardia Gorrien bidez talde unitario eta independente bat antolatzeke egin zuten saiakerak (boltxebikeek izen hori eman zioten antolatu nahi zuten miliziari, 1905eko iraultzako antolakunde finlandiar batean oinarrituta) ez zuen fruiturik eman irailera arte (sobiet nagusietako ordezkari boltxebikeen kopuruak goraldia izan zuen hilabete hartan).

Wadek auzi interesgarri bat mahairatzen du miliziaren eztabaidan, zeinak Errusiako Iraultzako problematika garrantzitsuenetarikoa bat islatzen duen. Autoritateek, alderdi politikoek eta milizia mota biek, beren antolakuntza formalari buruz eta herri-milizien eta langile-milizien arteko harremanari buruz eztabaidatzean, bi jarrerara guztiz kontrajarri zituzten. Postura baten defendatzaileek zioten hiritarrek bozka bitartez hautatu behar zituztela miliziez arduratzen ziren auzo-komiteak, zeinek, aldi berean, udal komiteak hautatuko zituzten. Bigarren posturaren aldekoen ustez –langile-miliziano gehienek defendatzen zuten–, komite horien hautaketak milizianoen esku egon behar zuten soilik, eta aldi berean, haiek beste komite zentral bat hautatu behar zuten sobietetako ordezkariekin batera. Langile borrokarienei kezka handia sortzen zien gehiengo formal baten aitzakia erabiliz beren autonomia eta, ondorioz, haiek armamentu gabe uzteko aukera sortzeak.

Izan ere, Behin-behineko Gobernuaren politikek, otsaileko egun haien ondoren boterea egonkortu nahian, miliziak desarmatzera eta murriztera jo zuten gero eta gehiago (baita herri miliziak ere). Hamarnaka mila langile armatu izateak mehatxua zekarkion gobernu burgesari, eta beraz, ezegonkortasuna. Haren ideiaaren oinarria udal polizia demokratikoa zen, ordurako Mendebaldeko herrialde batzuetan existitzen zena. Apirileko krisian, hamarnaka mila langile mobilizatu ziren Gobernuak Lehen Mundu Gerran parte hartzen jarraitzeko erabakiaren aurka. Horrek armatutako herritarrek izatearen gaineko beldurra areagotu zuen gobernuan. Behin-behineko Gobernuaren ustez, herri milizia ere gehiegi hazi zen. Maiatzetik abuztura, herri miliziako kideak 20.000tik 6.000ra pasa zirela kalkulatu du Wadek. Uztaileko langile matxinadak porrot egin ondoren, herritarrek arma guztiak uztea exijitu zuen Gobernuak uztailearen 16an. Neurri hori Petrogradoko Sobietak onartu zuen, non eseristak eta mentxebikeak ziren gehiengoa. Hala ere, neurri hori ez zen guztiz materializatu, lekuko sobiet eta fabriketako komite ugari haren aurka egin baitzuten. Horrek argi utzi zuen Behin-behineko Gobernuak zuen legimititate eza eta garai hartan guztian zehar egondako botere dualitatea. Mentxebikeek, aldiz, langile miliziak Guardia Gorrian batzeko proposamena blokeatu zuten Sobietetan. Mentxebikeen artean zabalduen zegoen ideiaaren arabera, milizia bat izatea beharrezkoa zen, baina ez zuen zertan espezififikoki langileena izan.

Kornilovek abuztuaren Petrograden kontra egindako ofentsibak areagotu egin zituen kontrairaultza armatu bat gertatzeari buruz boltxebikeek zituzten beldurrak, bai eta harengandik defendatzeko Guardia Gorri baten beharra ere. Wadek azpimarratzen du ofentsiba haren aldeko langile milizien berpizteak herri mailakoak izan zirela. Bitartean, boltxebikeak, miliziak zuzenean antolatzen urrun, miliziei orientazio politikoko orokorra ematera muga zitezkeen. Korniloven ofentsiba gaitzesteak Behin-behineko Gobernuaren gaineko mesfidantza handiagoa sortu zuen masen artean, eta, bitartean, boltxebikeak ospe handiagoa eskuratu zuten. Azkenean, urri hasieran, Guardia Gorri bat antolatu zen, langile miliziano eta ordezkari

ri boltxebikeen iniziatiba bateratuari esker. Berriz ere, bi ziren antolakuntzaren atzean zeuden arrazoiak: iraultza defendatzea eta beren konkistak aurrera eramateko prest egotea. Bigarren paper hori aste batzuk barru bete beharko zuten, urriaren 24tik aurrera, Behin-behineko Gobernuaren aurka boltxebikeen agindupean egindako matxinada labur eta arrakastatsua. Matxinadaren hasieran, boltxebikeek konfiantza zuten garnizioan, garai-pena lortzeko giltzarria zela uste baitzuten. John Reed-ek (1974) aipatzen du, ordea, Neguko Jauregia hartu zutenean, Guardia Gorriko hainbat kidek hartu zutela parte, eta soldaduen zuzendaritza-lanak egitera ere iritsi zirela. Egundorietan zehar azpiegitura eta sare estrategiko nagusiak hartu zituen ere Guardia Gorria izan zen.

Langile miliziaren auzia (beste hitz batzuetan, herriaren armatze orokorra) funtsezkoa da estatu-ordena burgesaren desegitean. Ideia hori ez da otsailetik urrirako garaian ikusten soilik, Marxek eta Engelsek Parisko Komunari buruz egindako analisian ere ikus daiteke. Marxentzat, Paris armatua egotea zen Komunaren funtsa. Frantziako Bigarren Inperioaren erortzearen eta Komunaren sorreraren artean, Asanblada Nazionala *“iraultza hartako gertaera bat zen soilik, eta Paris armatua egotea zen haren hezurmamitzea, hark bultzatu baitzuen iraultza (...)”* (Marx, 2016, 532. or.) Garrantzitsua da nabarmentzea Komunaren, sobieten eta tankerako langile-gobernuen legimititatea ez dela mugatzen talde armatu txiki bat izatera. Alderantziz, hamarnaka mila langile armatuk osatzen zituzten, zeinek, krisi politikoaren aurrean, iniziatiba hartu eta auzi publikoen gaineko antolakuntza demokratikoa defendatzen zuten, burokrazia tradizional nahiz parlamentarismo burgesetik haratago.

I. EPILOGOA. MASEN ESKU-HARTZEA AUKA PUBLIKOETAN

Marxek Komunari buruz egin zituen oharak jarraituz, Leninek demokrazia-molde bikaina ikusi zuen sobietetan demokrazia burgesarekin alderaturik. Botere lege-gilearen eta exekutiboaren fusioak burokrazia ekiditea eta herriaren agintea materializatzea lortzen zituen, masen arazoak ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko. Gainera, molde demokratiko goren hori ezinbestekoa zen

boterea sobietek hartu ondoren Errusian zegoen testuinguruan, gerra zibilean alegia. Horrela justifikatu zuen Leninek (1976, 41. or.) "Biltzar Konstituziogileari buruzko tesiak" testuan baldintza hauen pean egon daitekeen forma bakarra demokrazia sobietikoa dela:

"(...), gerra zibilak, zeina demokrata konstituzionalistek eta Kaledinek autoritate sobietarren, Langile eta Nekazarien Gobernuaren aurka egindako altxamendu kontrairaultzailearekin hasi baitzen, klase borroka nabarmen areagotu du, eta historiak Errusiako herriari ekarri dizkion arazoak bide demokratiko formalekin konpontzeko aukera guztiak ezabatu ditu, eta lehenik eta behin, bertako langile klasea eta nekazariak haserretu ditu".

**Behin-behineko
Gobernuaren politikek,
otsaileko egun haien
ondoren boterea
egonkortu nahian,
miliziak desarmatzera eta
murritzera jo zuten gero
eta gehiago (baita herri
miliziak ere). Hamarnaka
mila langile armatu izateak
mehatxua zekarkion
gobernu burgesari, eta
beraz, ezegonkortasuna**



Horren adibide garbia da botere sobietarrak etxebizitzaren auzia nola kudeatu zuen ikustea (ez zuen programa zehazturik aldezturik). Otsailetik aurrera, egoera egiaz anarkiko baten erdian, Petrogradeko eraikin zentral asko langileek okupatu zituzten (noble eta burgesia handiaren apartamentu erraldoi eta egoitza instituzionalak barne). Kasu batzuetan, bizirauteko berehalako beharrazanez erantzun zuten okupazio horrek, hain justu, etxebizitza bat eskuratzea. Beste batzuetan, okupazioa garrantzi handiko erabaki estrategikoen ondorio zen. Adibidez, boltxebikeek Petrograd erdialdeko luxuzko etxe bat okupatu zuten, eta berehala bihurtu zen beren egoitza. Eraikinaren jabeak auzitegiara eraman zuten kasua eta epaiketa irabazi zuten. Hala ere, ez zuen berehalako ondorio praktikorik izan: erabakiak ezin zuten aurrera jarraitu boltxebikeak desalojatuko zituen indar materialik gabe, eta hori Errusiako botere bikoitzeko ezohiko egoeraren erakusgarri da. Behin-behineko Gobernuak uztailako matxinada aitzakiatzat hartuta soilik bota ahal izan zituen boltxebikeak eraikin hartatik, taldeko liderren jazarpen eta espetxeratzearekin batera.

Sobietek behin boterea hartu ondoren egin-dako etxebizitzaren kudeaketak irakaspen asko utzi dizkigu demokrazia proletarioari buruz. 1917ko urriaren 30etik aurrera barrutietako sobieten esku gelditu zen etxebizitzaren kudeaketa. Errusian etxebizitzarekin zegoen desberdintasunen ondorioz, dekretu ofizialek zioten familia burgesetan pertsona heldu bakoitzak gehienez logela propio bat izan zezakeela, eta logela komun bat seme-alabentzat (baldintza horiek nahiko *duinak* ziren, Petrogradeko langileen logeletan batez-beste 2,6 pertsona bizi zirela kontuan harturik). Horrela, etxebizitza eskasiaren eta krisi ekonomikoaren aurrean, ordu-ra arte erabilerarik eman ez zitzairen apartamentu burgesetan bizi izan ziren hainbat familietako pertsona.

Edonola ere, Petrogradeko etxebizitzari buruzko artikuluan, Jahn-ek (1990) aipatzen du Errusia osoan etxebizitzari buruzko dekretuek (baita beste gai batzuei buruzkoek ere) ezartzen zituzten neurriak ez zirela absolutuak. Aitzitik, *a posteriori* ziren aplikagariak. Askotan, dekretuek dagoeneko hartutako eta aplikatutako erabaki iraultzaileak erregistratzen zituzten soilik. Kasu askotan, aldaketak egiteko abagune zabala zegoen, herri

mailako sobietek bertako arazoak ahalik eta modu malguenean konpon zituzten.

Bi urtean soilik, 65.000 langile-familiari eman zitzairen ostatu Petrograden. Horrek agerian uzten du demokrazia modu honek egunerokotasuneko aspektuetan izan dezakeen eragin sakona.



***Bi urtean soilik, 65.000 langile-familiari eman
zitzaien ostatu Petrograden. Horrek agerian uzten
du demokrazia modu honek egunerokotasuneko
aspektuetan izan dezakeen eragin sakona***



ONDORIO BEZALA: ERDIGUNEA ETA OINARRIAK

Irakurle askok dagoeneko beren buruei galdetuko zieten estruktura demokratiko sobietarren porrotaren zergatia. Galdera hori Errusiako Iraultzako gai nagusienetako bat da, eta guztiz beharrezkoa da sobietar esperientziari buruzko azterketa sakona egitea hari behar bezalako erantzunak emateko, identitarismoak saihestuta –mugimendu komunistan ohikoak izan dira zenbait hamarkadatan–.

Edonola ere, beharrezkoa da sozialismorantz egindako trantsizioaren *komplexutasunari* buruzko azken ohar bat egitea. Marxek Komunari buruz egindako analisisan ez zuen proposatzen autoantolatutako organoak dituen demokratismo lokal bat izatea nahikoa denik sozialismorako trantsizioa egiteko. Haren ustez, masen antolakunde demokratikoei maila altuago batean egon beharko lukete bateratuta eta koordinatuta: “(...) *sozietate kooperatiboek ekoizpen nazionala plan bateratu bati jarraituz erregulatu behar dute* (...)”. Plan bateratu baten bitartez erregulatzea, ironikoki (Engelsek dioen moduan, proudhonismoaren teoriaren influentziak), helburutzat zuen Parisko Komunak. Erdigunearen eta oinarrien arteko bitartekaritza auzi nagusia da sozialismorako trantsizio guztietan. Komunistek ezin dute, besterik gabe, harreman horri uko egin eta oinarrien (izan sobietak, sindikatuak edo Alderdiaren organo lokalak) horizontaltasunaren eta autonomiaren alde egin. Izan ere, ekoizpen modu kapitalistaren gaindipena eta berrantolaketa gauzatzeko beharrezkoak dira erdiguneak eta periferiak, zentzu geografiko nahiz kontzeptualean.

Urriaren ondoren, botere sobietikoa ez zebilen sozialismoa *abstraktuan* eraikitzen. Alderantziz, baldintza oso konkretuak zituen. Gerra zibilak, iraultza internazionalaren porrotak eta boltxebi-keek nekazariei babes txikia emateak (Errusiako biztanleriaren gehiengoa ziren) ikusarazi du erdigune baten (Alderdi Komunista, Sobieten Kongresua eta Herriaren Komisarioen Kontseilua) eta haren oinarrien (eskualdeko eta herrietako sobieten sarea, fabriketako komiteak, sindikatuak) arteko koordinazioak berebiziko garrantzia duela. Sobietar izaera zuen antolakuntzak ahalbidetu zuen, adibidez, Siberiako Herriaren Komisarioen Kontseiluak Brest-Litovsketako Itunean bakea ez onartzea eta potentzia zentraleri gerra deklaratzeko.

Haren bertuteak mugak ere badira. Sozialismorako trantsizioari buruz egindako edozein ikerketa serio eta zintzok, botere zaharra eraitsi eta esperientzia sobietarrean oinarritutako botere berri baten eraikuntzari buruzkoak, nahitaez izan beharko du kontuan iraultza-sormena hainbat agindu eta oztoporen pean garatu zela. ●

BIBLIOGRAFIA

Jahn, Hubertus F. “The Housing Revolution in Petrograd 1917-1920”. *Jahrbücher für Geschichte Osteuropas* 38, 2. zk. (1990): 212-27.

Lenin, Vladimir I. “Tesis sobre la Asamblea Constituyente”. Hemen: *Obras Completas*. Tomo XXVIII. Madril: Akal, 1976.

Marx, Karl. “La guerra civil en Francia”. En *Obras Escogidas*. 1. bolumena, Karl Marx eta Friedrich Engels. Madril: Akal, 2016.

Reed, John. *Diez días que estremecieron el mundo*. Akal Bolsillo. Madril: Akal, 1974.

Wade, Rex A. *Red Guards and Workers' Militias in the Russian Revolution*. Stanford: Stanford University Press, 1984.

***Marxek Komunari buruz egindako
analisian ez zuen proposatzen
autoantolatutako organoak dituen
demokratismo lokal bat izatea
nahikoa denik sozialismorako
trantsizioa egiteko. Haren ustez,
masen antolakunde demokratikoek
maila altuago batean egon beharko
lukete bateratuta eta koordinatuta***





KOLABORAZIOA

BORROKAREN BEROAN





ALDERDI KOMUNISTEN ERAKETA ETA ESTRATEGIA MILITARRA

Testua — **Miguel García**

Irudia — **Lander Moreno**

“Daukagunari eusteko,
behin eta berriz konkistatu
behar dugu”

- Goethe, *Fausto*

Taktikaren eta estrategiaren auzia marxismo klasiko osoan egon da presente, egungo ordena soziala iraultzeko gaitasuna duen indarra antolatzeko. Izan ere, ezarritako ordena gainditu nahi duen marxismoak funtsezko egitekoak ditu honako hauek: boterea eraso edo higadura bidez “hartzearen” eztabaida; iraultzaren esperientziaren baitan abangoardiaren funtzioa planteatzea; lagunak eta etsaiak bereiztea; eraso, oreka edo atzera-egite taktikoaren faseak ezaugarritzea; klase-harremana suntsitzean oinarritutako gizarte berri bat antolatzea gainerako mundu kapitalistarekiko etsaitasun irekian; edota Alderdiak fusilaren gainean agin dezan bermatzea. Marxismoak laster ikasi zuen borrokatik at ez dela irakaspenik, iraultzak ekintza politikorako eskolak ere badirela, eta esperientzia horietatik irakaspen baliotsuak ateratzen direla.

Azalpenarekin hasi aurretik, hala ere, funtsezko bereizketa bat egin behar dugu: alde batetik, gerra burgesa eta haren ondorio logikoa, gerra inperialista, eta, bestetik, gerra proletarioa edo iraultza. Biek motibazio politikoa duten arren, gerra inperialistan politika autonomizatu egiten da, eta sarraskia pizteko makina “inpertsonal” bihurtzen da gerra. Heriotza-ekoizpen horretan, soldaduak ere autonomizatu egiten dira beren estatuetatik, eta ohorearen, abertzaletasunaren edo hasierako helburuen kontzientzia bera ere galdu egiten dute. Gerra iraultzailean, berriz, egoera bestelakoa da:

“Jeneral tsaristek diote gure soldadu gorriek edozein zigor jasaten dutela, baita armada tsaristak inoiz jasango ez lituzkeenak ere. Eta hori da engaitutako langile eta nekazari bakoitzak badakielako zergatik borrokatzen den, eta kontzienteki isurtzen duelako odola justiziaren eta sozialismoaren garaiaren alde”.

Zientzia militar burgesak (Clausewitz, Delbrück) ekarpena egin diezaguke (iraultza guztiak halabeharrez gerrak baitira), baina ekarpen hori mugatua baino ezingo da izan. Izan ere, iraultzak masa-gerrak direnez –esplotaziorik gabeko beste gizarte berri bat eraikitzea helburu duten herri-gerrak–, zientzia militarra ezin da besterik gabe aplikatu: forma hobe batean sintetizatu eta azpiratu behar da, eta molde berri bat hartu behar du. Edonola ere, Clausewitz *Vom Kriege* (“Gerraz”) estrategia militar burgesaren liburuak lider komunistengan eragin izugarria izan zuen, eta marxista ugari arretaz irakurri zuten, hala nola Engelsek, Leninek, Maok edo Giápek. Liburu horrek ikasgai baliotsu ugari barnebiltzen ditu, eta hurrengoak

azpimarra ditzakegu: defentsaren eta ofentsibaren arteko asimetria (ahulezia-egoeran, posizio bat erasotzea irteerarik gabeko kalezulo bat izan daiteke, eta defentsak, aldiz, indar gutxiago galdegiten du); indar-metaketaren printzipioa (armada mugikorrek gaitasun gehiago dute kolpe erabakigarriak emateko); indar moralaren garrantzia (esan bezala, ez da gauza bera norbere burgesia nazionalarentzat borrokatzea lapurreta inperialistarako posizio abantailatsua defendatzeko, edo sozialismoaren alde borrokatzea); politikaren jarraipen gisa ulertzea gerra, beste bitarteko batzuk erabilzen dituen fenomeno gisa (gerra bere helburuetatik ez bereiztea, eta multzo-ikuspegia edo ikuspegi estrategikoa nagusitzea eragiketa militar jakin bakoitzean); edota gudu erabakigarriaren unea (gudu hau noiz egin aukeratzeko gaitasuna duen alderdiak askoz baldintza onuragarriagoak izango ditu). Horrez gain, Clausewitzek gerra herrikoia kontzeptua garatu zuen, “gerra txikia” deritzona: kontzeptu hori 1808an Espainian eratutako gerrilla-talde antinapoleonikoei buruzko azterketan sortu zuen, eta Marxek eta Engelsek ere arreta handiz aztertu zituzten gerrilla horiek. Militar prusiarraren helburua ez zen munduko iraultza komunista izan, kontrakoa baino. Hala ere, errespetuz eta miresmenez hitz egin zuen armak hartu eta altxatzen den herriari buruz (*Landsturm*, ez *Landwehr*), eta hori aipatzekoa da: *partisanoek*, T. Derbenten *Clausewitz eta herri-gerra* lanaren arabera, “bertute militarra norbanakoen kemen, trebetasun eta gogoarekin konpentsatzen dute”.

Zientzia militar burgesak (Clausewitz, Delbrück) ekarpena egin diezaguke (iraultza guztiak halabeharrez gerrak baitira), baina ekarpen hori mugatua baino ezingo da izan

PARISKO KOMUNAREN ESPERIENTZIA, 1871N

1871ko martxoaren 18an, Frantzia eta Prusia-ren arteko gerran, Paris ehun eta hogeita hamaika egunez setiatu egon zen, eta momentu horretan Thiers-en Gobernu errepublikarrak hiriburua prusiarrei errenditu zien. Horretarako, langile talde federatuak (Guardia Nazionalea deiturikoa osatzen zutenak) desarmatu nahi izan zituen Gobernuak. Hala ere, Parisko langileriak gogor egin zion aurre eta, masa-eraso baten ondoren, Komuna aldarrikatu zuten Hôtel de Villen bandera gorria altxatuz.

Parisko Komunan, proletarioak, soldatapeko lanera ohituta zeudenez, diziplinaz eta seriotasunez antolatu ziren, eta Komuna bisitatzen zuen oro harriturik gelditzen zen

Mugak muga, blankistak izan ziren taktikan eta estrategian gehien pentsatu zutenak, eta barrikaden plan bateratu bat garatu zuten, “armada oztopatzea, setiatzea eta haren artilleritik babestea” helburu zuena, S. Bernsteinek dioenez. Soldatapeko lanera ohituta zeudenez, proletarioak diziplinaz eta seriotasunez antolatu ziren, eta Komuna bisitatzen zuen oro harriturik gelditzen zen; izan ere, Versaillesen bertsioa sinetsirik, Komuna kaosa inposatzen zuten bandalo eta bidelapurren lasterbide bat zela uste zuten. Serrailierrek, Internazionalaren ordezkariak, zera baieztatu zuten: “mundu guztia bere postuetan dago, naturaltasun osoz”. Ordea, Versailleseko tropa erreakzionarioak hiria konkistatzera abiatu bezain pronto, ordena hori disolbatu egin zen, azukre koxkor bat ur berotan bezala, eta haren ordezkari boluntarismo historikoa eta hormen barruko izu espontaneista nagusitu ziren. Batzorde Zentralak porrot egin zuen defentsarako plan orokor bat antolatzean, eta abnegazioari eta norbanakoaren boluntarismoari dei egin zien hiria defendatzeko:

“ARMETARA! Bete dezagun Paris barrikadaz, eta, harresi inprobisatu horien atzean, jaurti diezaiegun etsaiei gerra-oihua, harrotasun oihua, desafio oihua, baina baita garaipen oihua ere. Paris, bere barrikadekin, menderaezina baita”.

Barrikada espontaneoan aldeko deiak onurak baino kalte gehiago eragin zituen, argi eta garbi. Erraz altxatzen ziren arren, gero ezin zituzten babestu. Izan ere, *communard* gehienak beren auzoak zaintzen geratu ziren eta harresiak alde batera utzi zituzten; horrela, Thiersen tropak berehala sartu ziren. Parisen izugarritzko abnegazioa zegoen, baina deia antzua zen: defentsa-estrategia global bat falta zen. Horrela, indar erreakzionarioek Aste Odoltsu basatia piztu zuten, eta, barrikadaz barrikada, suntsitu egin zuten arma bakartzat abnegazioa eta duintasuna zituen proletariotza.

Nazioarteko mugimendu komunistak irakaspenak atera zituen Parisen jazotakotik: arrakasta lortzeko langile masak Estatuko Gobernuan eta Armadan sartu behar ziren. Izan ere, langile-klase armatuak osatutako herri-armada bat, ondo antolatuta badago, ohiko armadarik beldurgarriena baino boteretsuagoa da. Iraultza ez dago arima onberentzat egina, eta akats larria da norbera suntsitzeko prestaturik dauden etsaiekin jarrera bakegile bat hartzea. “Botere-dualitatearen” egoera orekaezina da, eta, momentu batez egonkorra dirudien arren, epe luzera eztanda egiten du. Parisko sarraskia zama astuna da proletariotzaren oroimen kolektiboan, baina indar boltxebikeentzako motibazio gisa balio izan zuen, proletarioen diktadura finkatzeko orduan eraginkorrak izateko.

1917KO URRIKO ESPERIENTZIA BOLTXEBIKEA

1905eko iraultzak, masa-grebetan artikulatuak, porrot egin zuen: Leninen hitzetan, “Estatuari guztia erauzi zioten, boterea bera izan ezik”. Hala ere, esperientzia horretatik boltxebikeek ikasgai baliagarriak atera zituzten. Hiru, batez ere:

Langile-klase armatuak osatutako herri-armada bat, ondo antolatuta badago, ohiko armadarik beldurgarriena baino boteretsuagoa da

Lehenik, *tradeunionisten* kontzientzia eta masa-greba ez zirela nahikoak estatu-boterea konkistatzeko. Bigarrenik, terrorismo indibiduala eta ekintza isolatuak ere gutxiegi zirela tsarismoari aurre egiteko. Eta, hirugarrenik eta azkenik, emantzipazioaren aldeko borrokan sobietek berebiziko garrantzia zutela, proletariotzaren autoantolaketarako espazio gisa.

Leninen eta boltxebikeen borroka ekonomikoa, finean, “gerra-eskola” bat zen, eta proletarioak bake sozial erlatiboko testuinguru batean prestatzeko eta gogortzeko balio zuen. Sobietean, iraganeko esperientzia praktikoa plan bat egiteko baliatzen zen: iraultzaren indar armatua antolatzeko plana. Horrela, sobieta ofentsiba proletarioaren antolaketa-forma zen, ordena burgesa gainditzeko eta suntsitzeko espazioa; hau da, kontzientzia *tradeunionista* eta soilik ekonomikoa gainditzera bideratua. Era berean, gainditu egin zen terrorismo indibidualistaren bidea ere, non koadro askok askatasuna eta bizitza sakrifikatu zituzten indarrei eusteko behar zen antolaketarik ez zuen helburu batengatik.

Hurrengo urteetan, estrategia militarren kontzeptuei eta haiek politikarekin duten harremanari buruzko lehen eztabaida handiak izan ziren marxismoaren barruan. Hori 1910etik aurrera gertatu zen, eta Luxemburg eta Kautsky izan ziren protagonistak: eraso- eta higadura-estrategien arteko hautua izan zen eztabaidagai (*Niederwerfungsstrategie* edo *Ermattungsstrategie*, hurrenez hurren). Luxemburgek bi kontu defendatu zituen: indar iraultzaileak borroka irekiari ekiteko prest zeudela eta kontzientzia ekonomikoa borrokaren bidez bihurtuko zela kontzientzia politiko. Kautskyk, berriz, indar-metaketa progresiboaren eskema defendatu zuen, eta haren proposamenak azken konfrontazioaren unea zehaztugabeko etorkizun batera urruntzen zuen. Kautskyren arabera, estrategia hori egokiagoa zen Mendebaldeko; izan ere, sozialismoa errazago ezar zitekeen, baina zailagoa zen masa proletarioen artean nagusitzea, eta kulturalki eta lege zailagoa zen egungo indarkeria-ekintza justifikatzea.

Martovek Kautskyren alde egin eta haren jarrera 1905eko iraultzaren ondorioekin lotu zuen: “askatasun politikoaren aldeko borroka eta borroka ekonomikoa bateratzeko saiakerak [...] ez zuen mugimenduaren alde indartsua erakutsi, alde ahula baizik”. Lenin, aldiz, Luxemburgen jarrerari atxiki zitzaion. Azkenean, indarrak metatzeko posizio eurozentriko hori karta-gaztelu bat bailitzan erori zen Lehen Mundu Gerrarekin, eta, ondorioz, Bigarren Nazionalaren porrotarekin.

1910etik aurrerako urteetan, estrategia militarren kontzeptuei eta haiek politikarekin duten harremanari buruzko lehen eztabaida handiak izan ziren marxismoaren barruan

Urriko Iraultzan, lehenago edo beranduago, bi botereetako bat (Behin-behineko Gobernu edo sobietak) besteari gailendu beharko zitzaion; izan ere, bien arteko antagonismoa hain zen ahaltsua, ezen ezin baitzuten luzaroan elkarrekin biziraun

Ezinezkoa da Otsaileko eta Urriko Iraultzak ulertzea gerra inperialistatik at. Otsaileko Iraultza botere tsarista egurtu zuen altxamendu masibo bat izan zen: haren ondorioz, Nikolas II.ak abdikatu egin zuen, eta behin-behineko Gobernu bat eratu zen, Kerenski agintean zuena.

Momentu hartan aro berri bat hasi zen, Leninek “botere-dualitate” izenez kalifikatu zuen aldia. Bi botere, bi kosmobisio, gizartearen bi printzipio antolatzailerik bizirik: alde batetik, langile, nekazari eta soldaduen sobietak, gerra inperialista gerra zibil bihurtzea eta proletariotzaren diktadura eraikitzea helburu zutenak. Bestetik, eserista eta mentxebikeen Behin-behineko Gobernu zegoen, eta horien helburu etapista eta mekanizista iraultzaren unea *ad eternum* atzeratzea zen. Lehenago edo geroago, bi botere horietako bat besteari gailendu beharko zitzaion; izan ere, bien arteko antagonismoa hain zen ahaltsua, ezen ezin baitzuten luzaroan elkarrekin biziraun.

Leninek bere *Apirileko tesiak* baliatu zituen Petrogradera bueltatzeko, eta kontsigna argi bat kaleratu zuen: “inolako babesik ez behin-behineko Gobernuari, botere guztia sobietentzat”. Horrekin batera, propaganda eta lan politikoa erabili beharraren alde egin zuen, boltxebikeen gutxiengo egoera iraultzeko. Uztailean, Kornilov jeneral erreakzionarioak estatuko-kolpe bat eman zuen, eta, geroago paper sekretu batzuei esker frogatu zenez, Kerenskiren konplizitateak adostasuna lortu zituen botere tsarista berrezartzeko. Alderdi boltxebikeak, argi eta garbi, estrategia arrakastatsu bati jarraitu zion: Behin-behineko Gobernuarekin bat egin zuten militarrei (estatuko-kolpea gainditzeko alde militar berean kokatu ziren), baina ez zion inolako babes politikorik eman. Horren ordez, bat-egitea onura propiorako erabili zuten, eta proletarioak armatzeko denbora irabazi zuten. Albamonte eta Maielloren hitzetan:

“Gutxiengoa izanda, boltxebikeak modu defentsiboan borrokatzeko irakasle bikainak izan ziren 1917ko

iraultzan: ‘kolpe trebeak’ biderkatzen zituzten, hau da, defentsaren ofentsiba-baliabideak. Errusiaren erakunde burges parlamentarioek ez zuten prestakuntza txikiarik ere, eta, boterea sobieten esku zegoelarik, ‘kolpe trebe’ horiek berehalakoak izan ziren. Hala, sobietetan gehiengoa izan arren, bakegileek ez zuten inolako aitzakiarik izan”.

Stalinek berak, 1924an, boltxebikeen Armadaren eraketa eta garapenaren balantzea egin zuen:

“Egia esan, ezinezkoa zen boltxebikeek 1917ko martxoarako armada politikorik prest edukitzea. Hain zuzen, 1917ko apiriletik urrira bitarteko borroka eta klase-taldeen bidez joan ziren armada eratzen –apirileko manifestazioa, ekaineko eta uztaileko manifestazioak, barruti- eta hiri-dumetarako hauteskundeak, Korniloven kolpearen aurkako borroka eta sobieten konkista- eta, azkenean, urrirako lortu zuten. Armada politikoa eta armada militarra ez dira gauza bera: alde batetik, aginte militarrek armada osatu bat edukita ekiten dio gerrari, eta, beste aldetik, alderdiak borrokan bertan sortu behar du bere armada, klaseen arteko talka garatu bitartean, masak esperientziarekin konbentzitzen doazen heinean, alderdiaren kontsignak egokiak direla eta bere politika bidezkoa dela ikusita”.

Defentsatik erasorako itzulerarik gabeko puntua urrian izan zen, Petrogradeko sobietak boterea hartu zuenean Errusia osoko proletarioen izenean. Bettelheimen hitzetan:

“Urriaren 25ean [gure egutegian azaroaren 6an], beraz, ez zen herri-gerra bat burutu, ezta altxamendu bat ere: alde aurretik xedatutako plan baten arabera matxinada bat egin zen, masek babestu eta indar armatuak exekutatu zutena. Indar armatuak langile-klasetatik eta garnizioetatik zetozen, eta alderdi boltxebikeak esleitutako helburu zehatzak lortzeko jardun zuten, ‘matxinada artea da’ formula leninistarekin bat etorriz”.

Hasiera-hasieratik, eutsi eta biziraun egin behar izan zuen sobietarren botere berri eta hauskor horrek. Lehenengo urratsetatik, honako erronka hauetara aurre egin zuten: bost milioi pertsona baino

gehiagoko Armada Gorria eraikitzea, ia hutsetik; Errusia Lehen Mundu Gerratik ateratzea Brest-Litovskeko bake-akordioa sinatuz; nazionalizazioak eta gosearekin amaitzeko neurri sozialak hartzea; eta iraultza mundu osora zabaltzea helburu zuen Hirugarren Internazionala (Komintern-a) eraikitzea. Eta irabazi egin zuen. Eutsi eta iraun egin zuen beste iraultza batzuen alferrikako esperoan; pronostiko guztien aurka, garaitu egin zuen, gainera, gerra zibil bereziki bortitz eta krudel baten ondoren.

Leninek nazio inperialistetako proletarioek boterea hartuko zutelako esperantza zuen, aliatu baliotsuak eduki eta bultzada iraultzailea zabaldu ahal zezan, baina hori ez zen gertatu. Alemaniako KP-Dren horizonte iraultzailea 1923an itxi zen, 1919ko matxinada espartakistaren porrotaren ondoren: Europa osoko alderdi komunista handiena eraiki zuten, baina ez ziren iraultza antolatzeke gai izan.

Kominternak erasoaldi iraultzailea mundu osora zabaltzeko zailtasunaren berri eman zuen, eta defentsara bakarrik zuzendutako lerro bat hartzen hasi zen: gehiago kezkatzen zuen sobietar botereari eusteak, komunismoa hedatzeak baino. Azterketa clausewitziarra itzuliz, eraso eta defentsa asimetrikoak dira: horren adibide izan ziren fronte bakarraren gorabehera estrategikoak herri-fronteekiko, herrialde bakar bateko sozialismoaren ideia edo mundu inperialistarekiko harremanak ezartzea eta normalizatzea.

Boltxebikeek jarraitutako estrategia, laburbilduz, hurrengoa izan zen: gutxiengoa izanik borrokatu ziren, zuzeneko enfrontamenduak ekidin zituzten prest egon arte, eta, harrigarriki, zinez matxinada lasaia abiarazi zuten indar iraultzaileen hazkunderari, herritar gehienek neutraltasun onberari eta sobieten barruko lan politiko onari esker (matxinada lasaia izan zen, baina zinez bortitza

Alde batetik, aginte militarrek armada osatu bat edukita ekiten dio gerrari, eta, beste aldetik, alderdiak borrokan bertan sortu behar du bere armada

Leninek nazio inperialistetako proletarioek boterea hartuko zutelako esperantza zuen, aliatu baliotsuak eduki eta bultzada iraultzailea zabaldu ahal zezan, baina hori ez zen gertatu

harekiko erreakzioa, *zurien* aurkako gerra zibila). Eta estrategia horrek lotura handia du hurrengo puntuan azalduko dugunarekin: herri-gerra luzea, zeinaren adibide nagusia Txina izango baita. Sobietarren esperientzia erlatiboki laburra da: botere tsarista, 1914an betierekoa eta betirako bakean zirudiena, hiru urtean hondoratu eta 1903an jaio-tako alderdi baten botere-hartzearekin bukatu zen.

ESPERIENTZIA MAOISTA TXINAN

Txinako Alderdi Komunista 1921ean jaio zen, eta, hasiera-hasieratik, Kominternaren jarraibideak aintzat hartuta, lankidetzeta eta aliantza-politikak gauzatu zuen burgesia nazionalarekin, alegia, Txinako Alderdi Nazionalistarekin (Kuomintang-a). Kuomintangak 1911ko iraultzatik gobernatzen zuen Txina: iraultza horrek Qing dinastia eraitsi zuen, eta, berarekin, 2.000 urte indarrean egondako monarkia feudala eta erregimen dinastikoa suntsitu zituen. Nazionalistek aliantza hori “fronte batu demokratiko” bihurtu zuten, Txinako Alderdi Komunista ahultzeko eta mendeko egoera ahul batean jartzeko helburua zuena, eta masen arteko erreferentzialtasuna eta independentzia politikoa galarratzi zioten Txinako Alderdi Komunistari. Oreka mantentzeko ahaleginean, Txinako Alderdi Komunista lerro eskuindar eta bakegile bat defendatzera ere iritsi zen: hainbeste, ezen, momentu batean, feudalismoaren aurkako iraultza nazional demokratikoa helburu bakar gisa planteatu baitzuen, kapitalismoaren aurkako iraultza alde batera utzita. Hitzarmen hartan zeresana izan zuen elementu bat Japoniaren aurkako askapen nazionalako gerra izan zen.



Hala ere, Kuomintangarentzat ez zen nahikoa izan Txinako Alderdi Komunistaren posizio menpeko eta ahuldu hori: nazionalistak ez ziren indar-korrelazio mesedegarriarekin konformatzen, eta 1927an aliantza hautsi zuten alde bakarretik. Txinako Alderdi Komunistaren ahultasun-egoera aprobetxatu, eta milaka komunista erail zituzten sistematikoki. Sarraski horrek landa-eremurako exodo masibo bat eragin zuen; izan ere, bizirauteko komunista ugariak ihes egin behar izan zuten.

Berehala, Martxa Luzea izenez ezagutzen den aldi berri bat hasi zen: landa-eremuko indar iraultzaileak berrosatu eta berrantolatu zituzten eta, Kuomintangaren errepresiotik ihes egiteko, indar komunistek (Alderdian bertan ere gutxiengoa zirenek) 12.500 km egin behar izan zituzten bi urtez, Japoniaren kontrolpeko eremuetara iristeko. Bi urte horiek oso gogorrak izan ziren, penaz, etsipenez eta heriotzaz beteak, baina, horrekin batera, komunistek errotze handia izan zuten Txinako landa-gizartean bi urtez (komunistek landa-eremuan zuten finkapena izan zen Errusiako Iraultzaren ahulguneetako bat, bai eta *kulakekin* zuen arazoetako bat ere). Eztabaida ideologikoak eta ildoaren argipena egin ziren, jarrera komunistaren onarpenean ere aurrerapen ugari egin ziren eta, jakina, independentzia politikoa eta masen arteko erreferentzialtasuna berreskuratu zituzten. Prozesu gogor horretan bilakatu zen Mao Alderdiko lider, baina Alderdia ahul eta indar korrelazio oso kaltegarrian zegoen: “Txinako komunistak ez zituzten erabat akabatu. Berritro zutitu, zauriak garbitu, eroritako lagunak lurperatu eta borrokan jarraitu zuten”. Fukienetik atera ziren 50.000 komunistetatik, 15.000 bakarrik iritsi ziren Chensira. Zaurituak, akituak eta sarraskituak, 15.000 nekazari horiek Txinako Alderdi Komunistaren abangoardia politiko armatua bihurtu ziren: Armada Gorria.

Haustura-une hori benetan traumatikoa izan zen txinatar komunistentzat. Landetan herri-gerra planteatzeak Mosku eta Petrogradeko matxinada proletarioen aurkako heresia zirudien. Hori gutxi balitz bezala, gerra herrikoia Kominternaren oharpenen (eta, sarritan, oharpenak baino gehiago zirenen) aurka abiatu zen, eta Kominternaren Txinako ordezkariak Mao “traidoretzat” eta “burges txiki fanatikotzat” jo zuen. Izan ere, Txinak ez zuen Moskuren eredu etapista betetzen: baldintza materialak ez ziren nahikoa helduak iraultza proletarioa egin zedin, eta, Moskuren aburuz, momentu horretan Kuomintangeko indar nazionalista burgesekin fronte bakar bat osatu behar zuten. Estrategia horrek deuseztatu eta ia desagerrarazi egin zuen Txi-

Martxa Luzearen prozesu gogor horretan bilakatu zen Mao Alderdiko buru, baina Alderdia ahul eta indar korrelazio oso kaltegarrian zegoen

nako Alderdi Komunista. Martxa Luzeak, aldiz, oso bestelako mezua bidali zuen: ez da beharrezkoa baldintza egokiak garatu arte itxarotea irabaz daitekeela frogatzeko. Indar iraultzaileak klaseen arteko borroka eta talketan eraiki daitezke, eta eraiki behar dira. Hala, Kominternaren lerrotik hurbilen zeuden Txinako Alderdi Komunistako koadroek ere men egin behar izan zioten taktika berriari, gertakarien indarrak behartuta. Baldintza horietan, Alderdi Komunistak aukera historikoa izan zuen Txinako eskualde pobre guztietan hazi eta zabaltzeko, benetako indarra zuen erakunde gisa eratze-ko, egoera iraultzeko eta ezarritako ordena soziala mehatxatzeko. Robinson Rojasek intuizio-ariketa bikaina egin zuen, hurrengoa esan zuenean:

“Maok men egin izan balio Alderdiaren aginduari, ez balu hautsi, ez balu landa aldera jo matxindatuz zuzentzera, litekeena da Txinako Herri Errepublikak orain Txinako Errepublika Nazionalista deitzea. Chiang Kai-shek zuzenduko luke, eta haren Alderdi Komunista, agian, Italia, Txile edo Frantziakoa bezalakoa izango litzateke”.

Horrela, gerra zibila hasi zen, eta hainbat hamarkada iraun zuen. Maok, azkenerako, ezeztatu egin zuen altxamenduak hiri handietan hasi behar zirela zioen kontzeptu zaharra, eta Txinako testuingururako zuzena izan zen beste bide bat erakutsi zuen. Landa-eremuan base gorriak ezarri, nekazaritza-erreforma egin eta gerrilla-gerra bat aurrera eraman zuten. Hiriguneak inguratu zituzten armaz hornitutako nekazari iraultzaileek, eta, jarraian, hartu egin zituzten. Nola ez, Kuomintangaren erantzuna segituan etorri zen: Chiang Kai-shekek lau inguraketa- eta suntsitze-kanpaina abiarazi zituen, landa-eremuan eusten zuten indar komunistekin amaitzeko. Hala ere, Armada Gorriak eraso horiei aurre egin ahal izan zien; izan ere, defentsaren eta erasoaldiaren arteko asimetria aztertua zutenez, setioa hautsi eta indar erreakzionarioak ahuldu zituzten. Prest egon orduko eraso egin beharrean, Armada Gorriak hazten jarraitu zuen: nekazarien indarrarekin elikatu zen, eta borroka eta liskarren berotasunean gogortu zen.



Estrategia, egia esan, Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokratak Errusian jarraitutakoaren nahiko antzekoa izan zen. Lehenik, testuinguru historikoak aprobetxatzea: Errusian, Behin-behineko Gobernuaren ahulezia eta Korniloven kolpea izan ziren; Txinan, potentzia inperialista japoniarren aurkako askapen gerra. Ondoren, garaia iritsitakoan, aurre egiteko gai zen indar politiko gisa eratu ziren bi alderdi komunistak. Antzeko beste bi gertakari ere izan ziren, eta garrantzi handia izan zuten borrokaren garapenean: Errusiako Behin-behineko Gobernu ez zen gai izan estatu-kolpeari aurre egiteko (gai ez izateaz gain, botere tsaristaren berrezarpena negoziatzera ere iritsi zen); eta Kuomintanga inperialismo japoniarrarekiko indar kolaborazionista bihurtu zen (komunisten aurrerapenaren aurrean, hirugarren negoziatio-bide gisa eratu ziren). Frantzia ere, Thiersen indar erreakzionarioek errendizioa negoziatu zuten Prusiako Armadarekin: preso harturiko soldadu frantsesak itzultzearen truke sinatu zuten, eta zuzenean Komuna erreprimitzerako bidali zituzten soldaduak. Horrelako gertaerak erabakigarriak dira; izan

ere, indar korrelazioa eta lagunen eta etsaien arteko bereizketa aldatzen dituzte proletarioentzat oro har, baita antolatu gabekoentzat ere –ez dezagun ahaztu alderdi komunistak klase horren bitartekarritza behar duela existitu ahal izateko–. Kontraesanak jada ez ziren demokrazia/tsarismoa, batasun nazional txinatarra/okupatzaile japoniarrak, edo Frantzia/Prusia. Kontraesanak honako hauek bilakatu ziren: boltxebismoa/tsarismoa, maoismoa/inperialismoa eta Komuna/Inperioa.

1937tik 1945era arte, Japoniaren aurkako borroka areagotu egin zen, erresistentzia-gerra bihurtu arte. Sobietar Batasunak laguntza militarra, finantzarioa eta diplomatikoa eman zion erresistentziari, bai eta Amerikako Estatu Batuek (Pearl Harbourean ondoren) eta Erresuma Batuak ere. Txinako Alderdi Komunistak fronte nazional batuen ideia berreskuratu zuen ahalegin militarrek bateratuz, baina oraingoan ez zion laguntza politikorik eman Kuomintangari. Maok egoera aztertu zuen “Gerra luzearekin buruz” (1938) artikuluan, eta erresistentzia-gerrak luzea eta nekeza izan zitekeela azaldu zuen: hala, etsaiaren nagusitasun- eta

Maok 1938an zioenez, etsaiaren nagusitasun- eta erasoaldi-arotik indar iraultzaileak handitzeko eta etsaiarenak higitzeko borroka-prozesu luze batera igarotzea zen erresistentzia-gerra

erasoaldi-arotik indar iraultzaileak handitzeko eta etsaiarenak higatzeko borroka-prozesu luze batera igarotzea.

Japoniako Armadak etengabe egin zuen aurre-ra, eta Txinaren ia erdia okupatu zuen. Hala ere, ezin izan zituzten aurreikusitako Alderdi Komunistak zuzendutako kontraoperazioak –horiek fronteko lerroaren atzean zeuden, eta biztanleria zibilaren babesa izan zuten–. Horrela, Pigsinkuan pasabidean, Shanshiko iparraldean, Txinako Alderdi Komunistaren lehen garaipen handia iritsi zen: apurka-apurka, hamar laguntza-base baino gehiago ezarri zituen, eta Armada hogeitaz biderkatu zuen. Atzeragoardian mehatxatuta, Japoniako Armadak bere aurrerapena geldiarazi behar izan zuen. Erresistentzia-baseetan Txinako herriaren batasuna nagusi zen japoniarren erasoaren aurka, Alderdi Komunistaren zuzendaritzapean. Hurrengo urteak bereziki gogorrak izan ziren base gorrientzat: Kuomintangak bere bigarren kanpaina antikomunista berrabiarazi zuen gerraren erdian, eta Japoniako indar militar gehienak botere komunistaren oinarri arriskutsu horiek zanzatzerat bideratu ziren, “dena erre, denak hil, dena arpilatu” kanpainekin. Basakeria ez zen soilik base gorrien kontra zuzendu: milaka herrixka suntsitu zituzten.

Baina ezin izan zuten Armada Gorriaren erre-sistentzia hautsi, hura urteetako borroka asimetricora ohituta baitzegoen. Etxean egindako minak, tunelak... edozein neurri burutsu baliagarria zen gerrillarentzako, Japoniako Armada inperialistaren indarra hausteko. Gainera, 1942 eta 1943 bitartean marxismo-leninismoari loturiko ideologizazio eta prestakuntza kanpaina masibo bat egin zen, eta Armadaren lerroak sendotu egin ziren. Beraz, egoterra estrategia indartsu batekin gauditu zen, eta 1943tik aurrera hobetzen hasi zen. Kuomintanga desegiten ari zen, ustelkeriaren, ezkutuko amarruen, izu zuriaren eta japoniarrekiko kolaborazionismoaren artean. Stalingradeko erresistentzia heroikoak gerraren nazioarteko ibilbidea aldatzea lortu zuen: 1945ean Sobietar Batasuneko Armada Gorria Berlinen sartu eta indar faxistak akabatu zituen. Abuztuan, Sobietar Batasunak Japoniako Armada garbitu zuen Kuantungen, eta horri esker erresistentziak japoniar faxisten esku zeuden azken 197 hiriak konkistatu zituen.

Eraso japoniarraren aurkako garaipenaren ondoren, ez zen bakerik etorri, askapenerako herri-gerra baizik, eta 1949ra arte luzatu zen. Horrek iraultza sendotu eta Txinako Herri Errepublikak aldarrikatu zuen. Bitartean, Chiang Kai-shek Askapenerako Herri Armada eta base gorriak suntsitu

nahi izan zituen, Txina AEBen kolonia bihurtzeko asmoarekin: horretarako, eta AEBen laguntza militarrekin, lurraldearen %70 okupatu zuen. Hala ere, Askapenerako Herri Armadak hainbat garaipen lortu zituen, eta berehala irabazi zuten herrialde osoaren gogoa eta babesa Txinako Alderdi Komunistak zuzendutako fronte batu baten programa politikoak eta nekazaritza-erreformarako eta lurra- ren birbanaketarako programa ekonomikoak.

1947ko azken hilabeteak erabakigarriak izan ziren. Askapenerako Herri Armada erasoaldi estrategikoaren fase atzerazinerat igaro zen, aurrerapen geldiezinarekin, eta hiru inguraketa-kanpaina abiarazi zituen: Liaosi-Srenyang, Juai-Juai eta Nankin-Shanghai, hirurak ere arrakastatsuek. 1949ko abuztuan, Ameriketako Estatu Batuek Defentsa Liburu Zurian Askapenerako Herri Armada garaitzeko ezintasuna onartu zuten. Chiang Kai-shek, bere aldetik, irteera baketsurako azken trikimailu bat egin nahi izan zuen, baina ez zuen lortu eta Taiwanera ihes egin behar izan zuen. 1949ko urriaren lehen, Tiananmen plazan, Txinako Herri Errepublikak aldarrikatu zuten. Maok hurrengoak idatzi zuten:

“Gure iraultzak mundu osoko herritar masen begikotasuna eta poza bereganatu ditu. Gure lagunak mundu osoan daude”.

ERRESISTENTZIA ETA IRAULTZA BALKANETAN: JUGOSLAVIA ETA ALBANIA

Jugoslaviako Alderdi Komunistak 1919an sortu, eta hiru ardatzetan egituratu zen: auzi demokratikoa (monarkia hondoratzea), klase herrikoien bizi baldintzak, eta herrien autodeterminazio eskubidea. Aitzitik, Serbiarren, Kroaziarren eta Esloveniaren Erresumak Gobernu diktatorial bati bidea utzi zion, eta, errepresioaren eta porrotaren ondorioz, Jugoslaviako Alderdi Komunistak desagerarazi zituen.

Jugoslaviako Alderdi Komunistak esperientziadun koadro militarrek zituen; izan ere, milaka boluntariok eman zuten izena Nazioarteko Brigadetan, Espainiako Gerra Zibilean faxismoari aurre egiteko. Milizianoen borroka heroikoak, gutxiagotasunean baina “burugogor”, herrialde guztietako boluntarioak hunkitu zituen, eta nazioarteko faxismoaren aurkako gerra bere egitera bultzatu zituen. Jugoslaviarrek, XIII. brigadan kokatuak, esperientzia militar baliotsua berenganatu zuten, eta, geroago, Jugoslaviako iraultzarako eta askapen nazionalerako gerrarako eraman zuten jakintza hori. Brigadista eta partisano ohi horiek *Španjolci* izenez ezagutzen ziren beren lurraldean.

1941eko martxoaren 27an Jugoslaviaren okupazio faxista hasi zen. Hitler heldu zenean, Jugoslaviako Alderdi Komunista ez zegoen desagertzeaz; kontrara, blokeoak hautsiak zituen, oinarria handitua eta lortua zuen antifaxismoaren lidergoa. Masen mugimendua okupazioaren aurka zuzentzeko gai zen indarra zen. Naziak hamar zatitan banatu zuten herrialdea, eta horren helburu nagusia Balkanetako herrien artean gorroto nazionala piztea izan zen. Horrela, Kroazia beren nazio babestu bihurtu zuten, eta, beren asmo sezesionistak aurrera eramateko, Kroaziako Estatu Independentea (KEI) eraiki zuten. Ustatxak boterera iritsi ziren, eta, terrorearen bidez, “estatu etnikoki garbi” bat eraikitzen saiatu ziren (han, besteak beste, Jasenovaceko kontzentrazio-esparrua altxatu zuten, Europa osoko zabalenetakoa eta hilkorrenetakoa).

Berriro ere, lehen aztertutako esperientzietan bezala, botere-dualitateko egoera bat aurkitzen dugu erresistentzia antifaxistaren lerroetan. Alde bateatik, Jugoslaviako Alderdi Komunistako partisoanoak, Tito buru zutela, eta, bestetik, txetniketako indar monarkiko nazionalistak, Draža Mihajlović buru zutela. Kominternaren politika frontepopulistak bultzatuta, Jugoslaviako Alderdi Komunistak fronte zabal bat eraiki nahi izan zuen, langile-masak ez ezik beste klase batzuetako aktoreak ere bildu nahi zituen, hala nola burgesia txikia edo nekazariak. Jugoslaviako Alderdi Komunista zen fronte herrikoi hori zuzentzeko moduan zegoen indar bakarra: borroketan eta grebetan berotuta, eskarmentu militararekin, logika nazionalista hausten zuen eta benetan jugoslaviar dei zitekeen alderdi bakarra zen, eta horrek herri langile guztiairengana zintzo jotzea ahalbidetzen zion.

Garatutako estrategia militarra, beste kasu batzuetan bezala, baldintza asimetrikoetako gerrilla-gerrak izan ziren. Hitlerren gerra tximista-erasoen bidez (*Blitzkrieg*) zegoen diseinaturia, eta zaila izan zitzaion hari jarraipena ematea, bere estrategia militar faltagatik. Izan ere, operazio horiek txanpon bat airera botatzea bezalakoak ziren: lehenengoan arrakastarik ez bazuten, erabateko kolapsora kondenatuta zeuden. Gainera, ekialdeko frontean gerra gogortuz gero, partisoanok aukera handiagoa izan zezaketen gerra-operazioak abiarazteko. Hitler gerra anticlauserwitziarra egiten ari zen, partisoanok gerra clauserwitziarra egiten zuten bitartean. Aitzitik, partisoanok akats estrategikoak egin zituzten: esaterako, militarri hobeak ziren indarrak aurrez aurreko eraso zituzten bizi laburreko Użiceko Errepublikan (1941eko abenduan naziak konkistatu zutena).

Hala eta guztiz ere, herri-fronte batua pitzatzen hasi zen hura gidatzen zuten bi lerro antagonikoak marrazten hasi zirenean: iraultza eta kontrairaultza. Ahalegin belikoak eta Britainia Handiaren laguntza mantentzen jarraitzeko, SESB anibalente mantendu zen pitzatze horren aurrean, eta txetniken eta partisoanok arteko batasunerako deiak egin zituen. Hala ere, desberdintasunak nabariak ziren: Mihajlovićen proiektua serbiar nazioari erabat lotua zegoen (areago, Tito konbentzitzen ere saiatu zen Armadaren lerroetan musulmanak eta kroaziarrak akabatze beharraz); komunistek, berriz, batean nazionalitate eta gutxiengo etniko guztien borroka integratu nahi zuten armada bakar, “anaitasuna eta batasuna” (*bratsvo i jedinstvo*) ardatz zuen armada batean.

Txetnikiek “erresistentzia pasibo” baten aldeko apustua egiten zuten, altxamendu armatu baterako baldintzarik ez zegoelako; komunistek, berriz, altxamendu armatua betiko atzeratzearen arriskuaz ohartarazi zuten. Partisoanok eta txetniken arteko tentsio-igoerak eta su gurutzatuak txetniken eta okupatzaile nazien arteko hurbilketa eragin zuten: 1941eko azaroaren erdialdean Mihajlović Alemaniako Estatu Nagusiarekin bildu zen su-eten bat hitzartzeko eta elkarlanean aritzeko, eta horrek, beste esperientzia batzuetan bezala, indar partisoanok nazien okupazioaren aurkako borrokaren erreferente bakar gisa utzi zituen.

Hitler heldu zenean, Jugoslaviako Alderdi Komunista ez zegoen desagertzeaz; kontrara, blokeoak hautsiak zituen, oinarria handitua eta lortua zuen antifaxismoaren lidergoa. Masen mugimendua okupazioaren aurka zuzentzeko gai zen indarra zen

Txetnikiek “erresistentzia pasibo” baten aldeko apustua egiten zuten, altxamendu armatu baterako baldintzarik ez zegoelako; komunistek, berriz, altxamendu armatua betiko atzeratzearen arriskuaz ohartarazi zuten

Izan ziren garaipen moralak, hala nola Nere-tvakoa (partisanoek ibaia zeharkatu zuten zaurituak bizkarrean eramanez, eta, hala, inor atzean geratzen ez zela irudikatu zuten); baina baita porrotak ere, Sutjeskako sarraskia kasu. Azkenean, 1944an, Jugoslaviako Iraultzak estatu berri baten oinarrien erai-kuntza eta Belgraden askapena ekarri zituen:

“Hiru urteko gerra luze eta neketsuaren ondoren, Tito eta komunistak armada txiki eta deskoordinatu bat izatetik (bere burua defendatzera eta paraxutista sobietarren zain zerura begiratzera mugatzen zena), Bigarren Mundu Gerrako erresistentzia antifaxista heroikoenetako baten protagonista izatera pasa ziren”.

Albaniako kasuak antzekotasun dezente ditu jugoslaviarrarekin. Iraultza burgesa izan zen, baina Ahmet Zog-en estatu-kolpe kontrairaultzaileak zapaldu egin zuen, eta monarkia albaniarra ekonomikoki eta politikoki Italia faxistaren menpeko sukurtsal bihurtu zen. 1934ko apirilean, “erdikolonia” egoera haratago joan zen; izan ere, Zog Iaren pasibotasunaren aurrean, Italiak bere gerra-flota Dürresera bidali zuen.

Matxinada demokratikoak bata bestearen atzetik etorri eta zanpatuak izan ziren, baina, urtebete geroago, Zogek Gobernu erreformista liberal bat ezarri behar izan zuen. Egoera hartan, talde komunista txikiak indar eta antolaketa-gaitasun handiagoarekin hazi ziren, eta grebak, manifestazioak edo “ogiaren protestak” zuzentzera iritsi ziren. Berriro ere, Espainiako Gerra Zibilak faxismoaren aurkako borrokan ontzeko aukera eman zien Albaniako milaka brigadistari, eta, horrela, prestakuntza militar preziatua irabazi zuten. Kominternak bere zazpigarren eta azken batzarrean hartu zuen ildoaren pean (fronte herrikoien inguruko bateratzea), zelula komunistak bi punturen inguruan bateratzen hasi ziren: eskubide nazionalak eta eskubide demokratikoak. Horren ondorioz, 1941ean Albaniako Alderdi Komunista sortu zen, ondoren Albaniako Lanaren Alderdia izango zena, Enver Hoxha buru zuela (beranduen sortuko zen munduko alderdi komunistetako bat izanik).

Albaniako inbasio italo-faxista 1939an hasi zen. Inbasioa abian jarri zenean, Zogek ez zuen defen-

tsarik planteatu ere egin: Londresen erbesteratu zen, eta herrialdeko urre-erreserba gehienak berekin eraman zituen. Horrela, Albania erabat kolonizatua izan zen.

Indar faltagatik, komunistak hasieran ez ziren gai izan militarki erantzuteko, eta erresistentziak izaera espontaneoagoa izan zuen. Errepresioari ihes egiteko, erresistentzia-gerrillariaren baseak eratu zituzten mendietan. Ideologikoki, Albaniako Alderdi Komunista bi indarren artean mugitu zen: alde batetik, Kominternaren eragina eta mugak, eta, bestetik, Txinako iraultzaren eragina.

Gerrilla-gerra areagotu egin zen, biztanleriaren gehiengoa batu zuen eta indar iraultzaileen ahalmen operatiboa handitu egin zen. Egoera hura 1943ko irailean irauli zen: Italia faxista errenditu egin zen. 1944ko azaroaren 18an Tirana askatu zen, eta pare bat aste geroago Shkodra, nazien eskuetan zegoen azken hiria.

Albaniako Herri Errepublikako Sozialista gaztearen lehen neurriak honako hauek izan ziren: lurjabeen desjabetzearen oinarritutako nekazaritza-erreforma, industrien sozializazioa eta abeltzaintza-ustiategi kolektiboen sorrera.

**Ideologikoki, Albaniako
Alderdi Komunista
bi indarren artean
mugitu zen: alde
batetik, Kominternaren
eragina eta mugak,
eta, bestetik, Txinako
iraultzaren eragina**

ERRESISTENTZIA ETA ASKAPEN NAZIONALA VIETNAMEN

Lehen Mundu Gerraren ondoren, Vietnamgo burgesia nazionala eta burgesia txikia ez ziren gai izan okupazio kolonialista frantsesaren aurkako askapen nazionalako mugimendu bat zuzentzeko. Indar nazionalistek, Phan Boi Chau eta Phan Chau Trinh buru zituztela, interes eta gaitasun gutxi erakutsi zuten askapen nazionallean. Izan ere, 1930ean sortu zen Indotxinako Alderdi Komunista, langile klasearen alderdi politikoa; eta une horretara arte ez zen askapen nazionalaren helburua zehazten hasi. 1930 eta 1931 bitartean bi matxinada piztu ziren nekazarien eta langileen aldetik kolonialismo frantsesaren aurka, eta Nghe An eta Ha Tinheko sobietetan gauzatu ziren. Hala ere, Frantzes armadak bortizki zapaldu zituen.

Alderdi Komunista gazteak bere burua berrakibatatu behar izan zuen eraso kolonialistei aurre egiteko, eta langileen eta nekazarien artean zabaltzeko. Kominternaren ildo frentepopulista berriei jarraituz, Indotxinako Alderdi Komunistak Fronte Demokratikoaren ildoak aurkeztu zuen, eta asmo txikiagoko helburuei heldu zien: prentsa- eta bilera-askatasuna, preso politikoentzako amnistia, Indotxinan bizi ziren frantziar aurrerakoiak ere barne hartuko lituzkeen unitate interklasista edo burgesia txikiarekiko malgutasuna, hura Alderdiaren erakartzeko.

II. Mundu Gerra hasi zenean, baldintzek bazuten "heldutasun nahikoa" komunistek independentziaren aldeko borroka zuzendu ahal izateko. Lehenik, komunistak indar mugikorra zen eta errepresioari aurre egitera ohituak zeuden; bigarrenik, frantsek bere arerioa deuseztatu zuten, Viet Nam Quoc Dân Đảng (VNQDD) alderdi nazionalista; eta, hirugarrenik, Fronte Demokratiko Nazionalaren adibidea zeukaten Txinan. Frantzia Armada naziaren eskuetan erori zenean, Japoniak Indotxina hartu zuen, eta, beraz, Txinako Alderdi Komunistak eta Indotxinako Alderdi Komunistak etsai bera zuten.

Lacouturek bere biografian dioenez, Ho Chi Mihnek bi ideia leninista-clausewitziar-maoista zituen buruan etengabe, eta behin eta berriz itzultzen zen ideia horietara: "une mesedegarriaren" nozioa eta "etsai nagusiaren" kontzeptua. 1941ean, AEB gerran sartu zenean, Ho Txinatik sartu zen Vientamen, eta Viet-minh sortu zuen (Vietnamen Independentziarako Liga). Espetxean egon ondoren, Hok berriz ere ausardia handia erakutsi zuen "une mesedegarria" aukeratzeko: 1945ean japoniarrek frantsesak armagabetu izana, munduko indarren korrelazioa eta Japonia Aliatuen aurrean errenditu



**Ho Chi Mihnek bi ideia
leninista-clausewitziar-maoista
zituen buruan etengabe, eta
behin eta berriz itzultzen
zen ideia horietara: "une
mesedegarriaren" nozioa eta
"etsai nagusiaren" kontzeptua**



izana. Hok koiuntura hori baliatu zuen erasoaldi estrategikoa abiarazteko —matxinada orokorra—, eta independentzia aldarrikatu zuen. Matxinada nahiko lasaia izan zen, bost urteko ahalegin luzearen eta erresistentzia antifaxistaren emaitza, eta komunistak eta Viet-minh askapenaren indar agintari bihurtu zituen. 1946ko martxoan, Frantziako Estatuak Vietnam "estatu aske" gisa onartu behar izan zuen, baina aitortpen hori paper errea zen, Frantziaren ahuleziaren emaitza, bere Armada gerran txikitua izan baitzen. Beraz, abenduan, urtebete baino gutxiago igarota, Frantziak Haiphong bonbardatu eta Viet-minhi gerra deklaratu zion berriz.

Hemen, bere merezimenduz, komunismoaren historiako estrategiarik argienetako bat nabarmendu zen, Vere Nguyễn Giáp herri-armadako komandantea. Hasieratik ulertu zuen Frantziak garaipen nahiko azkarra behar zuela, eta horregatik defentsa-estrategia bat planteatu zuen, geldialdia eta higadura zituena oinarri. Indar-orekara iristeko gakoa gerraren zama Frantziarentzat jasanezina izatea zen, burgesia frantsesak erabaki zezan alferrik zela jarraitzea. Eta oreka horretara iritsi ondoren, ofentsiba estrategikoa planteatzea eta suntsipen-gerrara igarotzea. T. Derbenten hitzetan:

“Askapen nazionaleko gerra batek garaipen militar erabakigarriak erdietsi gabe lor ditzake bere helburuak; nahikoa da botere zapaltzailearen gaintek jartzea politikoki; besterik gabe, botere zapaltzaileak senti dezan ezin duela gerra irabazi, gerraren prezioa jasanezina dela bere buruzagientzat edo iritzi publikoarentzat [...] Vietnamgo gerrak izaera bikoitza izan zuen: askapen nazionala [...] eta benetako garaipen militarra, deuseztapen bataila (edo kanpaina)”.

Konferentzia bateko jarraibideak gerrilla-gerrari buruz (1952) liburuan, Ho Chi Minhek honako hau esan zuen:

“Gerrilla-gerraren helburua ez da eskala handiko guduei aurre egitea: etsaiari hozka egitea da, ezin dezan bakean jan ez eta lo egin ere; arnasarik ez ematea; fisikoki eta mentalki ahitzea eta; azkenik, suntsitzea”.

Gerra-estrategia luzeak indarrak garatzea eta esperientzia gehiago biltzea ahalbidetzen zuen. Indar komunistek, Phu Tong Hoa-ko postuen aurka ustekabeko erasoan, Cao Bang-eko garaipenaren eta Vinh Yen-eko porrot mingarriaren ondoren (napalmaren eta antzeko suntsipen-arma berrien eraginez), garaitzea lortu zuten.

1954ko maiatzean, Giápek, azkenean, Frantziak Dien Bien Phúko behin betiko batailan botatako pultsua onartu zuen. Frantziako indar kolonialek ez zuten ulertu, hain zuzen ere talkari ihes egin ez ziotelako, vietnamdarrak zirela une hartan erasoaldiaren pisua zeramatenak, baldintzak aldatu zirela eta oreka estrategikoaren unea gaindituta zegoela. Giápek honela deskribatu zuen gudua: *“eraso eta aurrerapen geldoagoak, baina seguruagoak [...] garaitzeko eraso behar dugu, garaipenaren ziurtasuna dugunean bakarrik eraso”.* Lubakien atzetik, frantsesek edozein erasori aurre egin ahal izango zietelakoan, 55 eguneko setioari aurre egin behar izan zioten, azkenean garaituak izan ziren arte. Hainbat hamarkadatan eraso kolonialista jasan zuen herri batek osatutako Armadak, ekonomia nahiko primitiboa eta baliabide oso mugatuak zituenak, potentzia handienetako baten Armada kolokan jarri eta garaitzea lortu zuen, teknologia handiko gerra-industria handi baten eta deuseztapen-arma modernoenen gainean sostengatzen zen Armada bat, hain zuzen ere. Eta ez zen Vietnamgo historian hori geratutako zen aldi bakarra izan.

Uztailean, komunistek iraultza sendotzeko nekazaritza-erreforma eta lurraren banaketa-politika ezartzen zuten bitartean, inperialistek, Genevako Itunaren ondoren, Vietnam zatitu zuten 17. paraleloan. Iparraldeko Gobernu iraultzaile berriarentzat izan zen, eta hegoaldea antzinako potentzia kolonialaren eraginpean geratu zen. Bigarren hori Es-

tatu Batuen menpeko bilakatu zen, militarki eta politikoki, eta Gobernu txotxongiloaren buru Ngo Dinh Diem jarri zuten.

Hegoaldeak uko egin zion bateratzeari buruz erabakitzeke proposatu ziren hauteskundeak deitzeari; horrek eta komunisten aurka piztutako beldur-kanpainak lehen erresistentzia-mugimendua eragin zuten Hegoaldean. 1959an Vietcong-ak (Hego Vietnamgo Askapenerako Fronte Nazionala) zuzendutako altxamenduan gorpuztu zen erresistentzia-mugimendu hori. Hala, haiek iparraldetik babesteko eta bateratzearen alde borrokatzeko beharra nabarmendu zuen Ho Chi Minhek.

Vietnamgo Gerrak, edo Indotxinako Bigarren Gerrak, bi hamarkada iraun zuen, eta XX. mendeko bortitzenetakoa izan zen. Ameriketako Estatu Batuek 7,5 milioi tona bonba jaurti zituzten Indotxinaren gainera, 500.000 km²-ko azaleran, eta horrek aise gainditu zuen Bigarren Mundu Gerran bi aldeetatik jaurtitako bonba-masa. Munduko armadarik boteretsuenak, berriz ere, behar izanez gero “mila urtez borrokatzeko” prest zeuden borrokalaria izan zituen aurrean, masa pobreen artean errotze sakona zutenak eta, berriz ere, ahalik eta baliabide gehien erabiliz erresistentzia-kanpaina bat jarraitzeko prest egon zirenak. Elefante baten eta tigre baten arteko borrokaren metafora zabalitzen hasi zen herriaren artean. Tigreak zuzeneko liskar bat bilatzen badu, zanpatu egingo du elefanteak, baina erasotzeko eta ezkutatzeko estrategiari jarraitzen badio, odolustuta hilko du elefantea. “Gerra txikiaren” ideia clausewitziarra eta gerraren faseen trantsizioaren nagusitasuna funtsezkoak izan ziren gatazka armatua konpontzeko. Alderdi batzuk nabarmendu nahiko genituzke:

Frantziako indar kolonialek ez zuten ulertu, hain zuzen ere talkari ihes egin ez ziotelako, vietnamdarrak zirela une hartan erasoaldiaren pisua zeramatenak, baldintzak aldatu zirela eta oreka estrategikoaren unea gaindituta zegoela

Vietnamen, Munduko armadarik boteretsuenak, berriz ere, behar izanez gero “mila urtez borrokatzeko” prest zeuden borrokalariak izan zituen aurrean

Lehenik eta behin, gerra herrikoia izateko beharra, hau da, herriaren gainean eutsia egotea, bereziki haren maila zapalduenen gainean. Masen artean errota izan ez balitz, Vietcongak eta Herri Armadak egindako gerrilla porrotera kondenatuta egongo zen. Bigarrenik, alde aurretik ezarritako plan batera ez mugatzeak, bai Giápek, bai Vietcongak, antolaketa-, maniobra- eta borroka-moduen arteko malgutasun izugarria izan zuten: garaile ateratzen ziren erasoaldiei jarraipena ematen zieten eta areagotu egiten zituzten, edo porrotera kondenatutako erasoaldiei amaiera ematen zieten. “Defentsaren eta erasoaren arteko dialektikaren” nagusitasun horrek ere bere mugak izan zituen, eta horrek baja asko eragin zituen, hala nola Drang haraneko guduak; izan ere, AEBko aireko indar militarra hilgarria izan zen.

Defentsa-estrategia aktiborako itzulerak, T. Derbenten arabera, “herri-armadaren aurrerapen kuantitatibo txikiak indar-korrelazioaren aldaketa global bihurtzea ahalbidetu zuen”. Esaterako, Khe Sanh-eko setioan edo Tet-eko ofentsiban jasandako porrotak garaipen moral bihurtu zituzten, porrotek ez baitzituzten indar komunistak ahuldu; gogo eta erabakitzen handiagotz hazi eta eutsi zuten, basakeriaren eta Agente Laranjaren aurka. Gainera, lehenago aztertu dugun egitateak, hau da, herrialde inbaditzailearentzat gerra onartezin bihurtzeak, berebiziko garrantzia izan zuen kasu honetan ere.

1972an, indar iraultzaileak borroka erabakigarria, eraso estrategiko orokorra, planteatzeko prest zeuden, Pazkoko Erasoarekin. Ipar Vietnamgo Armadaren gehiengoak osatutako hiru frontek kaosa piztu zuten Hego Vietnamen, eta, erregimen txotxongiloa eraistea lortu ez bazuten ere, Hego

Vietnamgo eta AEBko tropen morala erabat txikitu zuten. Hiru urte geroago, 1975ean, Udaberriko Erasoaldia amaitu zen, Saigon hartu, Estatu Batuak ebakuatu eta erretiratu, eta Vietnamgo bi zatiak berriro elkartu zirenean.

EPILOGOA

Komunista gisa, honako hauek dira estrategia militar proletarioen ibilbide kondentsatu honetatik atera ditzakegun ikasgai garrantzitsu batzuk: borroka-mekanismoak hobetzeko beharra, gerraren faseen ezaugarrien garrantzia eta borroka forma jakin batzuk hartzeko malgutasuna. Eta, jakina, guztia barnebilduz, gerraren izaera herrikoia: edozein iraultza porrotera bideratuta dago masen laguntzarik eta haien lan eraginkorrik gabe. Armadak masekin bat egin behar du.

Matxinadaren formak arrakasta izan zuen Paris eta Errusiako esperientzietan, neurri batean potentzien izaera inperialistagatik, eta beurri batean Estatuko Gobernuaren ahultasun handiagatik. Leninek *Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena* lanean, “inperialismoaren katebegi ahulenaren” kontzeptuarekin planteatu zuen hori.

Geroko esperientzietan, ordea, armada askoz beldurgarriagoen aurka, matxinadaren orde gerra herrikoi luzea ezarri behar izan zen, eta defentsa aktiboaren alderdi estrategikoa nagusi bihurtu. Masen artean errotuz, lan politikoa eginez eta etsaiari moztaraz kenduz, iraultzaren indar moralak irabaziz joan ziren, eta kontrairaultzarenak txikituz. Pentsatzen badugu, bitxia da nola azter dezakegun gerra herrikoi luzea *Ermattungsstrategie* ez-kautskiar bat bezala. Ikusi genuenez, Kautsky indarra higitzeko eta metatzeko estrategia hori erasoaren unea (ofentsiba estrategikoa) *ad eternum* luzatzeko koartada gisa ulertzen zuen (eta, bidean, parlamentarismoaren bitartez onura pertsonalak lortzeko). Aitzitik, herri-gerra luzeak prozesu osoan hartzen du kontuan eraso-unea, haren defentsa aktiboa da, eta gudu erabakigarriaren eta azken garaipenaren baldintzak eraikitzeko balio du.

Edozein iraultza porrotera bideratuta dago masen laguntzarik eta haien lan eraginkorrik gabe



Horretarako, Clausewitz-en analisiak bereziki garrantzitsuak dira, ez autoritate-argudio gisa azalertzeko, ezta bere ideiak mekanikoki aplikatzeko ere, baizik eta, T. Derbentek dioen moduan, “arte militar burgesaren erabilera kritiko baina metodikoa egiteko: gerra iraultzailearen izaera herrikoi eta proletarioak ez zituen haren proposamen guztiak baliogabetu, baizik eta mugatzen zituenetik harago joatea eta mota berriko gerrako zientzia eta arte proletarioen oinarriak ezartzea ahalbidetu zuen”.

Thomas Müntzer iraultzaren teologoa lanean, Blochek kontatzen du Müntzer buru zuten nekazariak beren etxeetara itzultzen zirenean 1525ean, printzeen aurkako gerran porrot egin ondoren, kantu bat kantatzen zutela. Honela zioen: “gure ondorengoak gu baino hobeto borrokatuko dira”. Azken porrotean ere, etorkizunean garaipena lortzeko aukeran bakarrik pentsa zezaketen. Gure iraganeko esperientzia iraultzaileetatik ikastea eta gai estrategikoei buruz pentsatzeko denbora eta indarra eskaintzea ezinbestekoa da maila emateko, klase-gerran hobeto borrokatzeko. ●

Herri-gerra luzeak prozesu osoan hartzen du kontuan eraso-unea, haren defentsa aktiboa da, eta gudu erabakigarriaren eta azken garaipenaren baldintzak eraikitzeko balio du



ERRREFERENTZIAK

CLAUSEWITZ, Carl von, *De la guerra*, Madrid: La esfera de los libros, 2005.

DERBENT, T., *Clausewitz y la guerra popular*, Madrid: Dos Cuadrados, 2024.

MARX, ENGELS, LENIN, STALIN, TROTSKY, MAO, CHE, *Lucha de guerrillas*, Gijón: Júcar, 1979.

NEUBERG, A. *La insurrección armada*, Euskal Herria: Boltxe, 2023

Argitalpena
2025KO URTARRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa eta
diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Licencia


The background is an abstract watercolor composition. It features several large, organic, and somewhat irregular shapes in various shades of red and orange. These shapes are layered and overlap, creating a sense of depth. The colors range from deep, saturated reds to lighter, more translucent oranges and yellows. The edges of the shapes are soft and blended, characteristic of watercolor painting. The overall effect is warm and textured.

arteka